



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

HEZKUNTZA, FILOSOFIA
ETA ANTROPOLOGIA
FAKULTATEA

FACULTAD
DE EDUCACIÓN, FILOSOFÍA
Y ANTROPOLOGÍA

IRAKASLEEN ARTEKO HARREMANAK
ESKOLA TXIKI BATEAN: ADIMEN
EMOZIONALA OINARRI DUEN PRAKTIKA
BATEN ANALISIA
GRADU AMAIERAKO LANA

Txikitik handira

EGILEA: Yanci Irigoyen, Maria

ZUZENDARIA: Amenabarro Iraola, Esti

GRADUA: Lehen Hezkuntza

MINORRA: Hezkuntza Berezia

EKAINA/2019

GRADU AMAIERAKO LANA

Lan honi aurre egitea ahalbidetu duzuen guztioi

Igantziako eskolako irakasleak,

familia, Esti,

Eskerrak zuei.

GRADU AMAIERAKO LANA

*Txiki izenez, txiki gorputzez
handia maitasunean
ta handiago bilakatuko
zara etorkizunean
zure txikitasunean*

-Andoni Egaña-

IRAKASLEEN ARTEKO HARREMANAK HEZKUNTZA EMOZIONALA
LANTZEN DEN ESKOLA TXIKI BATEAN

Maria Yanci Irigoyen

EHU/UPV

Honako hau, Nafarroako iparraldeko landa-eremuan kokatua dagoen eskola publiko bateko irakasleen arteko harremanak aztertzen dituen Gradu Amaierako Lana da. Eskola txikia izateak eta bereizgarri egiten duen *Emozio Hezkuntza*-ren proiektua aurrera eramateak harreman horiengan duten eragina izan dira aztergai nagusi. Horretarako, bi irakasle-tutore eta zuzendariari sakoneko elkarrizketak egiteaz gain, irudien analisia eta narratibaren teknika kualitatiboa erabili dira, hauen bizipenen sakontasuna bilatzeko helburuarekin. Bildutako ebidentzien bidez, eskola txikian aritzeak eta emozionalki adimentsuak izateak irakasleen arteko harremanak baldintzatzen dituela frogatu ahal izan dugu. Bukatzeko, lan honek hobekuntza proposamen batzuk formulatzeaz gain, etorkizunari begira ikerketa lerro berri bat irekita utzi du, hezkuntza emozionala azpimarratuz.

Irakaslea, harremanak, eskola txikia, hezkuntza emozionala

Este es un Trabajo de Fin de Grado sobre las relaciones del profesorado de una escuela situada en la zona rural del norte de Navarra. Ser una escuela pequeña y tener incorporada un proyecto de educación emocional, han sido clave para analizar el efecto que tienen en las relaciones anteriormente citadas. Para ello, aparte de realizar entrevistas semiestructuradas con dos tutoras y el director de la escuela, se ha utilizado la técnica cualitativa de análisis y narración de imágenes, con el fin de poder acercarnos a las vivencias más personales. A partir de las evidencias obtenidas, se ha podido concluir que el trabajar en un espacio como la escuela pequeña y ser emocionalmente competente ayudan a que las relaciones entre los docentes salgan favorecidas. Para finalizar, a parte de ofrecer propuestas de mejora, se deja abierta una línea de investigación haciendo incapié en la eficiencia de la educación emocional.

Docente, relaciones, escuela pequeña, educación emocional

This is an end-of-degree project that deals with the relations among teachers from a school located in the rural area of northern Navarra. The fact of being a small school and carrying out at the school level an emotional education project level have been the key to analyzing the effect that they have on these interpersonal relations. For this, apart from conducting semi-structured interviews with two tutors and the school principal, the qualitative technique of image analysis and storytelling has been used, in order to get closer to the personal experiences of teachers. Based on those evidences, it has been possible to conclude that working in a space such as a small school and being emotionally competent help favorably the relationships between teachers, underlining positive interpersonal relationships. Finally, apart from offering improvement proposals, this work leaves open a line of research making special mention of the efficiency of emotional education.

Teacher, relationships, small school, emotional education

AURKIBIDEA

Sarrera.....	1
1. Marko teoriko eta kontzeptuala	3
1.1. Irakasle lanbidea gaur egun.....	3
1.1.1 Irakaslearen funtzioa: gaur egungo gizartean irakasle izatea.....	3
1.1.2 Irakaslearen zauriak	5
1.1.3 Irakasleen erronka berriak	6
1.2. Irakasleen arteko harremanak	7
1.2.1. Kontzeptura gerturatze bat	7
1.2.2. Espazioa eta denbora irakasleen arteko harremanetan	8
1.2.3. Ongizatea irakasleen arteko harremanetan	10
1.2.4. Irakasleen arteko kolaborazioa	12
1.3. Eskolako giroa eta irakasleen arteko harremanak.....	14
1.4. Irakasleen arteko harremanak Eskola Txikietan.....	15
1.5. Emozioak irakasleen arteko harremanetan	16
2. Helburuak	20
3. Metodologia	21
3.1. Sarrera	21
3.2. Erabilitako teknikak	22
3.2.1. Sakoneko elkarrizketak	22
3.2.2 Irudien analisisa eta narratiba	22
3.3 Testuingurua eta parte-hartzaileak	23
3.4. Lanaren prozedura	24
4. Emaitzak.....	26
4.1. Irakasle tutoreen eskutik jasotako emaitzak	27
4.1.1. Sakoneko elkarrizketak bi tutoreekin.....	27
4.1.2. Irudien analisisa eta narratiba E2-rekin.....	32
4.1.3 Irudien analisisa eta narratiba E3-rekin.....	33
4.2. Zuzendariaren eskutik jasotako emaitzak	35
4.2.1. Sakoneko elkarrizketa zuzendariarekin.....	36
4.2.2. Irudien analisisa eta narratiba E1-ekin	39
5. Ondorioak.....	42
6. Hobekuntza proposamenak	44
7. Erreferentzia bibliografikoak.....	47
8. Eranskinak.....	52
1. Eranskina: Hezkuntza curriculum-ak definituriko gaitasunak eta kompetentziak.....	52
2. Eranskina: Irakasle tutoreei elkarrizketa gidoia.....	53
3. Eranskina: Zuzendariari elkarrizketa gidoia.....	55

GRADU AMAIERAKO LANA

4. Eranskina: Eskolako zuzendariaren baimena.....	57
5. Eranskina: Ikerketa praktikorako parte baimena.....	58

TAULEN AURKIBIDEA

Taula 1 Adimen emozionala.....	18
Taula 2 Elkarrizketatuen datuak.....	24
Taula 3 Sakoneko elkarrizketako analisi unitateak.....	26

Sarrera

Gradu Amaierako lan honen bitartez, Nafarroan kokatuta dagoen eskola publiko bateko irakasle talde baten harremanak aztertu ditugu. Eskola publiko hau, eskola txikiak bezala ezagutzen diren eskola sarean kokatuta dago eta bere eragin esparrua nekazal guneetan bizi diren haur eta nerabeei hezkuntza eskaintza osoa eskaintzea da.

Eskola txikiak egitasmoa Euskal Herriko hezkuntza paisaian interesgarria den hezkuntza fenomeno dela esan genezake. Eta bi dira bere bereizgarri nagusiak: landa eremuetako haur eta nerabeen sozializazioan duten eragina batetik, eta bertan baliatzen diren metodologia eta hainbat praktika berritzaile bestetik, adin desberdinetako ikasleak nahastu eta bikotekako tutoretza egitea esaterako. Gure kasuan, lan honetan *Hezkuntza Emozionala* bezala ezagutzen den programaren aplikazioa irakasleen arteko harremanen analisiarekin lotu nahi izan dugu. Gure ustetan bi dimentsioak modu oso esplizituan lotzen direlako.

Irakasleen arteko harremanak aztertu ditugu. Hezkuntza sozializazio eremua den neurrian, askotarikoak diren harremanez osatua dago. Eskolan ikasleak biltzen dira, irakasleak eta bestelako profesionalak eta elkarren arteko harremanak eta interakzioak gertatzen dira. Eskolan irakasleen harremanak aztertzeak garrantzia handia duela uste dugu, lotura handia dutelako eskolako giroarekin, kolaborazio sareekin eta baita bertako kulturarekin ere.

Irakasleen arteko harremanak eskolan bi pertsona edo gehiagoren arteko interakzio bezala ulertzen ditugu eta harreman horiek irakasleen irakaskuntza-ikaskuntza praktikan zein haien ongizate pertsonalean eragina dute. Harremanak gainera dimentsio desberdinak dituzte, batetik dimentsio pedagogiko bat hezitzearen zereginari lotutakoa eta bestetik pertsonarteko beste dimentsio bat, pertsonak eskolak elkartzen direnean sortzen eta eraikitzen dituzten berezko harremanak, norbere bizipen pertsonalei lotuak. Biek eskola bateko giroa eta ongizatea neurtzeko adierazle interesgarriak dira. Modu berean, harremanek eskolan forma desberdinak agertzen dituzten espazio eta denborari erreparatzen badiogu. Eskola txikiak gure ustetan espazio txikiak izanik ere aukera ezinegokiagoak eskaintzen dituzte askotarikoak diren harremanak modu intentsoago batean bizitzeko. Irakasleen arteko gertutasun fisikoa nabarmenagoa delako, ikasle kopurua txikiagoa delako.

Lan hau Nafarroako iparraldeko landa eremuan kokaturiko Igantziko eskola txikian oinarritu dugu. Bertako ikasle ohia izanik uneoro errealitatea gertutik eta azal propiotik bizitzeko aukera izateaz gain, lanean ari diren irakasleekin harreman estua izateak sakonki aztertzeke aukera eman digulako.

GRADU AMAIERAKO LANA

Igantziko eskolan 10 urtez martxan diharduen *Hezkuntza Emozionalaren Proiektua*¹ aurrera eramatea interesgune bihurtu da, eskola txikia izateak harremanak hobeak izan daitezzen laguntzen duen moduan, adimen emozionala lantzeak harreman horiengan duen eragina justifikatzeko aukera ematen digulako.

Ikerketa lan honek irakasleen arteko harremanen garrantziaz jabetzea ahalbidetzen du. Izan ere, tradizionalki ia beti irakasle eta ikasleen arteko harremanak aztertu izan dira, eta zentzu honetan garrantzitsua da irakasleak erdigunean kokatzea, beraien bizipen eta sentimenduetatik abiatzea, hauek baitira eskola aldaketa zein berrikuntza metodologikoak gertatzeko akuilu inportanteenak. Horrela, bukaeran ateratako jakintza eta ondorioak irakasle batzuen subjektibitateatik ateratakoak dira, hauen errealitatea ezagutu, ulertu eta berari aztertzeke aukera eman digutelarik.

Modu honetan, lehen mailako azterketa kualitatiboa egin da. Eskola honetako zuzendari eta bi irakasle tutoreren pertzepzio eta bizipenak ezagutzeko elkarrizketa sakonak burutu ditugu; modu berean, hauen praktikara gerturatzeko eta ahotsak entzuteko asmoz, haien hezkuntza errealitatea arakatu dugu narratibak sortuz, horretarako irudiak baliatu ditugularik.

Ez hori bakarrik, irakasleen harremanen analisiak, bestelako balio batzuetan sakontzeko aukera eskaini digu, hala nola balio inklusiboetan. Eskolako harremanak positiboak eta osasuntsuak baldin badira bertako giroa ere bateratuagoa eta inklusiboagoa izatea laguntzen duelako.

Amaitzeko, aipatu lan hau honela osatua dagoela: lehenik eta behin marko teorikoa osatu dugu irakasleen harremanen inguruan hainbat adierazle finkatuz, horretarako gaiaren inguruan dagoen literatura zientifikoaren errebisioa egin dugu. Gero, ikerketa lanaren atal metodologikoa landu dugu, irakasleen praktika eta errealitate pedagogikora gerturatu nahi izan dugu eta aukeratutako metodologia eta erabilitako tresnen eta prozeduraren azalpenak jaso ditugu. Ondoren, lortutako emaitzak eta haien analisisa aurkezten ditugu; azkenik, lan honen hainbat ondorio zehaztu ditugu bai eta etorkizunari begira ere ildo berriak finkatu.

¹ Emozio Hezkuntza: Igantziko Eskola bereizgarri egiten duen eta gaur egun martxan dagoen eduki emozional batzuetan sailkaturiko eta maila guztietarako diseinatua dagoen eskola honen emozioen hezkuntzako proiektu propioa, honako helburu nagusi hauek dituelarik: batetik, ikasleen garapen integrala bermatzea eta bestetik, eskolako ikasleen arteko harremanak hobetzea. Adimen emozionala lantzeko tutoretza saioez gain, Yoga eta Margoketa bezalako teknikak erabiltzen dituzte. Honen inguruko informazio osagarria hemen: <http://igantzikoeskola.blogspot.com/2013/01/emozio-hezkuntza.html>

1. Marko teoriko eta kontzeptuala

Atal honetan, ikerketa lan hau burutzeko beharrezkoak izan zaizkigun oinarri teorikoak biltzen dira. Lehenik eta behin, irakaslearen lanbidean eman diren aldaketen zergaitiak bilatu nahi izan dira, errealitate berrien aurrean bere lanbidean gertatu diren aldaketak ulertu ahal izateko.

1.1. Irakasle lanbidea gaur egun

Irakaslearen lanbidea etengabe aldatzen ari da. Gizarte errealitatea aldakorra da, ziurgabetasuna nagusi den garaiak bizi ditugu eta horrek irakasle lanbideari eragiten dio. Baumanek (2000) modernitate likidoa bezala definitu ditu garaiok. Honek, hezkuntzaren eremura, kezka, krisia eta ziurgabetasuna ekarri ditu. Honela, esan dezakegu gaur, irakasle izatea zeregin konplexua dela.

Lan hau idazten ari garen une berean esan dezakegu konplexutasuna areagotu egin da. COVID-19ak eragin duen osasun krisiak beste behin, agerian utzi du hori. Krisia ez da soilik osasunaren esparrukoa, gizarte bizitzaren beste esparru guztiak ere barne biltzen ditu, artean ekonomia eta hezkuntza bera.

Tradizionalki irakasle izatea ezagutzaren inguruan hark duen harremanarekin ulertua izan da. Irakasleak erakutsi egiten du eta ikasleak ikasi, irakasleak ezagutzaren monopolio ia eksklusiboa izanik eskolan. Irakaslearen autoritatea ezagutzarekin lotu izan da historikoki. Oinarrietara jotzen badugu, irakaslea irakasten duen pertsona da, herri edota komunitate bateko ondorengo generazioak prestatzeaz arduratzen dena, tradizioz gainera ezagutzarekin lotu izan da, hau da irakasleak asko daki eta ikasleak ikasi egiten du. Gaur gaurkoz ordea, globalizazioak hau aldatu du, irakasleak jada ezagutza eta jakinduariarekiko zuen balizko monopolio hori galdu du. Noski, ez dugu ukatuko irakasleak jakin egin behar du (Imbernón, 2017). Gaur ordea, informazio denen eskura dago, bai kantitatez zein kalitatez; Internet-i esker ia dena eskura dago. Besterik da informazio horren benetako erabilerak hezkuntza zereginetarako duen balioespena.

Gaur heziketari bestelako erronkak eskatzen zaizkio, ikasleak bizitzarako prestatzea eskatzen zaio. Eta horrek errotik aldatu du heziketa ulertzeko modua bai eta irakaslearen lanbidea ere.

1.1.1. Irakaslearen funtzioa: gaur egungo gizartean irakasle izatea

Tradizionalki irakaslea curriculumak zehazturiko edukiak ondorengo generazioei transmititzera mugatu da. Industrializazio aurretik, informazioa zenbait pribilegiadunen eskura zegoen, eta liburuetan idatzita zegoen hura zen egia bakarra. Irakaslearen

funtzioa beraz, ezagutza horien hedatzaile eta transmisore hutsa izatea zen, ezagutzak autoritatea eman ahala, ikas prozesuko protagonista bilakatuz (Bonafé, 2002).

Industrializazio garaian ordea, gizarte-sistema aldatu eta eskolatzeko masiboak hasi ziren, hezkuntzaren helburua lan merkatura bideraturiko alfabetizazioa bilakatu zelarik. Hau horrela, irakasleak ikasleak lanerako prestatzen zituen, ezagutza iturri bakarra oraindik ere bera izanik.

XX.mendean gertatu zen irakaslearen funtzioen aldaketarik nabarmenena; informazioa hedatzeko eta zabaltzeko bide berriak sortu ziren, hala nola, teknologia eta gaur egungo internetak. Irakaslea ezagutzarako bide bakarra ez izateak, ordura arteko estrategiak baliogabetzea ekarri zuen, eta mundu mailan hezkuntza sistemaren eraginkortasuna zalantzan jartzen hasi ziren (Torres, 2007).

Hezkuntzaren ikuspegi aldaketa honek irakaslearen funtzioak berrikusteko beharra sortu zuen, hezkuntza helburua lanerako prestatzea izatetik, bizitzarako prestatzera igaro baitzen. Hala, irakasleak ikasleei gizarte errealitate bati erantzuteko irakatsi behar die. Honen adibidetzat, Erkidegoan Heziberri 2020k eta Nafarroan 2014an argitaratutako Foru Dekretuak ere, hezkuntza curriculumak konpetentzietan (kasu errealitateko eskera konplexuei modu egokian aurre egiteko trebetasunak) edo gaitasunetan oinarriturik diseinatu izana, bizitzarako prestatzeko balio dutenak definituz (Ikus eranskinak 1).

Bestetik, informazioa hedatu eta zabaltzeko balio duten teknologia berri horien bitartez informazioa oso erraz eskuratu daitezenez, irakaslearen lanbidea aldatu duen zeregin nagusienetariko bat ikasle guztiek informazio hori eskuratu, aztertu, hautatu, ordenatu, maneiatu eta modu egokian erabiltzeko estrategiak irakastea izan da (Delors, 1996).

Adibideekin ikus daiteke beraz, hezkuntza helburuak aldatu direla eta ildo berean, baita irakasle eta ikaslearen prozesuak ulertzeko moduak ere. Orain, irakasleak ikasleak bere ezagutza propioak eraikitzeko laguntzaile izan behar du, ikaslea erdigunean jarriz, eta horretarako, metodologia berritzaile, parte hartzaile eta aktiboak aplikatu behar ditu; *Es deseable que la escuela le inculque más el gusto y el placer de aprender, la capacidad de aprender a aprender, la curiosidad del intelecto. Imaginémoslos incluso una sociedad en que cada uno sería alternativamente educador y educando* (Delors, 1996, 15, or.). Beraz, irakaslearen ezagutzaren hedatzaile izatetik, ikaslearen garapen integrala bideratzeko estrategia eta baliabideak dituen profesionala izatera igaro da.

Ondorioz, gizarte eredu berrieekin batera irakaslearen funtzioak ere aldatu dira. Urte gutxitan aldaketa sakonak eman behar izan ditu, baina horretarako, baliabideak eskuratzeko formakuntza jasotzeaz gain, inguruan dituen faktore desberdinen eraginak ere aztertzea komenigarri da.

1.1.2. Irakaslearen zauriak

Aldaketa paradigma honetan irakasleari erronka berriak esleitzeak, irakaslearen ezegonkortasuna ekar dezake. Ezegonkortasun hori, Esteve-ren (1987) gisan, irakasleak jaso ditzaken ondorio negatiboen multzo bezala ulertzen dugu. Horrela, irakaslearen zauriak bere desmotibazioan eragina dute eta lanarekiko atxikimendua nabarmen baxuagutzen da. Aldiz, bere pozak lan asebetetzearekin manifestatzen dira, pozik gaudenean dena baita errazago, eta poztasun horrek gauzak egiteko gogoia eta ilusioa dakar.

Ikus dezagun bada, irakasleen zaurien jatorrietariko bat egoera berrietara egokitzeko beharra izan dela. Gehienetan epe motzeko aldaketak direnez, ez sistemak ezta irakasleak ere ez du astirik aldaketa esanguratsuak gauzatzeko eta honek eskola komunitatea nahastu egiten du (Delors, 1996).

Hau kontuan harturik, Esteve-k (1994) adierazten du gizarteak hezkuntzarekiko duen ikuspegia aldatu den neurrian, honen autoritatearekiko zalantzek, ikasleen motibazio faltak, ikasgeletako aniztasunak, baliabide eskasak eta lan burokratikoaren eginbeharrek ere irakaslearen ezegonkortasun emozionala ekar dezaketela (Esteve, 1994).

Esteverekin bat eginik, Torres-ek (2006) ere irakaslearen desmotibazioa sortzen duten beste inplikazio batzuk gehitzen ditu, horien artean hezkuntza helburuen ulermen falta, oinarriko formakuntza eskasia, ikasleekin edota familiarekin komunikatzeko zailtasunak, hezkuntza kalitatearen arduraduna irakaslea soilik izatea eta irakasle funtzioen etengabeko zabalkuntza, adibidez (Torres, 2006).

Horiek guztiak saihestu ahal izateko, Esteve-rekin (1987) ados gaude oinarriko formakuntzan eta arrisku hauen prebentzioari denbora eskaini behar zaiola dioenean.

En primer lugar, es preciso hacer un planteamiento preventivo que, partiendo de las deficiencias y lagunas constatadas en el período de formación inicial de los futuros profesores, rectifique enfoques e incorpore nuevos modelos de formación (...) En segundo lugar, conviene articular estructuras de ayuda para el profesorado en ejercicio. (Esteve, 1987, 103, or.)

Gainera, irakaslea interakzioz beteriko eremuetan lanean aritzen da eta beraz, De Pablos eta González-ek (2012) dioten moduan, honen ongizatea inguru soziokultural, laneko giro eta gainontzeko hezkuntza komunitateko partaideekin sortutako

harremanengandik ere baldintzatua egon daiteke. Horregatik, norbanako bezala izan ditzaken kezkak edota desoreka emozionalak inguruan ere nabariak dira.

1.1.3. Irakasleen erronka berriak

Irakasleari zenbait eskakizunei erantzun azkar eta egokiak emateko eskatzen zaio, baina momentuan ez du nahiko baliabide modu eraginkor eta automatikoan aldaketa horiek emateko. Aldaketak beraz, irakaslearentzat erronka bihurtu behar dira, Delors-ek (1996) dioena oinarritzat hartuz, ikasleari hasierako oinarrizko ezagutza batzuk eskuratzen lagundu behar dio, gero, errealitateko erronkei ezagutza horiek erabili, garatu eta sakonduz aurre egiteko. Ez hori bakarrik, gizarte likido honetako aldaketetara egokitzeko eta hauetan trebatzeko ere baliabideak eskaini beharko dizkio, baina horretarako, Bolívar-ek (2004) dioten moduan, prestakuntza ezinbestekoa izango da; formakuntza bai ikasleak trebatzeko baina baita irakaslea berarentzako ere.

La formación del profesorado, en coherencia con otras líneas de actuación de asesoramiento y con las restantes estrategias de innovación, como metodología de trabajo de una formación /innovación centrada en la escuela, normalmente, utiliza un modelo abierto de resolución de problemas, con apoyo de asesores o agentes externos de cambio. La autorrevisión escolar, como reflexión conjunta de los profesores sobre sus prácticas, se puede constituir así en proceso y plataforma para el desarrollo y mejora interna de la escuela, y en la que habría de quedar integrada la formación continuada de sus profesores. (Bolívar, 2004, 10, or.)

Formakuntza horiez gain, oinarrizkoa izango da irakasleak modu kooperatiboan lan egitea, kooperazioarekiko, dibertsitatearekiko eta ikaskuntzarako ikuspegia zabaldu egiten baita (Delors, 1996).

Elkarlan eta elkarbizitza eredu horren bidez, irakasleak balio inklusiboak sustatu behar ditu, eta hezkuntza eskaintza era inklusibo batean egiteak, bertako harremanak ere inklusiboagoa izaten lagunduko du. Eskola inklusiboa Arguiñano eta Karrera-k (2018) ulertzen duten moduan, denei hezkuntza eskubidea bermatzeaz gain, aniztasuna ezaugarri positibotzat hartzen duen instituzioa izango da: *La escuela inclusiva garantiza el derecho a la educación de todo el alumnado e implica la superación de toda forma de discriminación y exclusión educativa* (Arguiñano eta Karrera, 2018, 149, or.).

Ikas-irakas prozesuak birplanteatzeak pertsonen arteko harremanak ulertzeko moduak ere aldatu egiten ditu. Beraz aldaketa paradigma hau onartuz, eskolek inklusioaren alde egin behar dute. Parrilla eta Moriña-k (2006) adierazi moduan, aniztasunaren barruan ez ditugu Hezkuntza Premia Bereziak dituzten ikasleak bakarrik, pertsona guztiak gara anitzak eta hori kudeatzeko ezinbestekoa dira formakuntza eta irakasleen arteko kooperazioa.

Eskola inklusiboa izateak kalitatezko hezkuntzarako bidea egiteaz gain, ikasle bakoitzari egokitutako hezkuntza eskubide bat bermatzea dakar, bere gaitasun intelektualak, bere inteligentzia motak, ikasteko estrategiak, gaitasun fisiko nahiz sensorialak, sinesmen erlijioso eta kulturalak, sexualitatea, generoa eta klase soziala aintzat hartzen dituen bitartean (Torres, 2008).

No comprometerse en la lucha contra la segregación escolar equivale a aceptar y ser cómplices de que en algunos de esos espacios destinados a educar a la ciudadanía más joven, no todos gozan de idénticos derechos, y muchos, por tanto, tienen auténticos problemas de reconocimiento, de redistribución y de representación. (Torres, 2008, 90, or.)

Beraz, funtzio aldatetekin batera hezkuntza sistemari egiten zaizkion eskakizunei erantzunak emateko, komunitate osoak ahalegin horiek erronkatzat hartu behar ditu. Zauriak saihesteko eta norbere zein komunitate osoaren ongizatearen alde egiteko, ardua profesionala eta baliabideak eskuratzea izango da gakoa, bizi dugun errealitatea kontuan hartu eta modu kolaboratiboan hezkuntza inklusiboa eraikiz.

1.2. Irakasleen arteko harremanak

1.2.1. Kontzeptura gerturatze bat

Euskaltzaindiaren Orotariko Euskal Hiztegiaren (2020) arabera, harremanak pertsonen edo pertsona multzoen artean gertatzen den eragin truke edo komunikazio dira. Horrela bada, irakasleen arteko harremanak, bi pertsona edo gehiagoren artean sortzen den harreman edo interakzio bezala ulertzen ditugu: *Las relaciones interpersonales están gobernadas por los principios de reciprocidad y equidad, de forma que la ausencia de reciprocidad puede generar sentimientos negativos, tanto si se da más de lo que se recibe* (Pozo, Alonso, Hernández eta Martos, 2005, 251, or.).

Irakasleen arteko harremanek garrantzia daukate interakzio horien inguruko informazio eskaintzeaz gain, eskolako bestelako prozesu orokorrak ulertzen laguntzen digutelako:

Muchas de las relaciones que se producen en la escuela se circunscriben al proceso de enseñanza aprendizaje, pero otras muchas tienen un contenido diferente y se aglutina en ámbitos de tipo emocional o personal que no hacen referencia al conocimiento o a la tarea. Es difícil a priori decir cuáles son las que tienen importancia y repercusión mayor para cada persona, en cada situación. (Santos Guerra, 1994, 58, or.)

Harremanek eskola horren giroa erabat baldintzatzen dute eta bertako testuingurua eta komunitate osoaren gaineko informazio zehatza eskaintzen digute, ikuspegi desberdinak aztertze aukera:

Atender a aquellos procesos que nos permitan analizar que contextos, relaciones y apoyos son necesarios para que pueda tener lugar un desarrollo curricular basado en el contexto de una escuela comprometida con valores tales como la interdependencia, solidaridad, autoregulación, emancipación organizativa y personal. (Marrero, 1995, 296-297, or.)

Harremanen analisiak eskola batek langileen asebetetze maila ezagutzea ahalbidetzen du, izan ere, Bolaños-ek (2015) ulertu bezala, harreman interperstsonal horiek komunikaziorako eta sentimenduen adierazpenerako bide esanguratsu dira.

Estas interacciones son un excelente medio de enriquecimiento personal, trato humano, pautas de comportamiento social y la satisfacción de la curiosidad, pues los demás son una fuente ilimitada de sorpresas, novedades, información, cambio de impresiones, así como de opiniones. (Bolaños, 2015, 73-74, or.)

Bolañosek aipatzen duen asebetetze mailari inguru sozialaren garrantzia gehitzen dio Benito-Martin-ek (2006). Honen irudiko harremanak lotura zuzena du pertsonen artean eraikitzen den komunikazioarekin: *Del tipo de relaciones interpersonales que mantengan los miembros de la organización, del sistema de comunicación que establezcan, de la cohesión que se genere entre ellos... va a depender, en parte, su nivel de satisfacción en el trabajo* (Benito-Martin, 2006, 5, or.).

Beraz, autore honek dioen moduan, irakasleen arteko harremanak ikastetxe horretako partaideen artean sortzen diren komunikazio sistema eta harreman sareak dira, formalak edo informalak, ikastetxearen dinamikan eragina izango dutenak.

Harremanak horrela ulertuz, hauengan eragin zuzena duten zenbait faktore aztertzea oinarrizkoa izango da interakzio truke horiek ulertu eta interpretatu ahal izateko, hain zuzen ere, espazioa eta denbora, irakasle horien ongizate maila eta hauen guztien arteko kolaborazioa.

1.2.2. Espazioa eta denbora irakasleen arteko harremanetan

Irakasleak komunitateko pertsona desberdinekin interakzioak izaten ditu: *los profesores mantienen relaciones interpersonales con los compañeros, padres y superiores* (Benito-Martin, 2006, 1, or.).

De Pablos eta González-ek (2012) bat egiten dute ideia honekin zera gehituz, ordu asko ematen direla bertan, eta hainbeste elkarbanatzen da espazio eta denbora horietan non bertako lankideekin sortzen diren harremanek berebiziko garrantzia duten.

1.2.2.1. Espazioa

Eskolan espazioak garrantzi handia du eta gure ikerketa burutu den eskolaren ezaugarriak kontuan hartuta (eskola txikia) are eta gehiago. Espazioa eskolan,

harremanak, praktika eta ikasle zein irakasleen bizitzak gertatzen diren eremua da, haien arteko harremanek espazio hauetan forma desberdinak hartzen dituztelarik.

Espazioa eremu fisiko bat da, ukigarria, baina espazioak badu bestelako dimentsio sinbolikoago bat ere; bertan gertatzen diren harremanekin lotura estua duena. Horretaz gain, kontzeptu oso poliedrikoa da eskolan eta lotura zuzena du bertan burutzen diren zereginekin. Honela, espazio batzuk zeregin formaletara dedikatzen diren bitartean, beste batzuk informaletara daude bideratuak, batean zein bestean, eraikitzen diren harremanak izaera desberdinekoak direlarik.

Hala eta guztiz ere, Martín-ek (2017) Trillaren sailkapenean oinarrituta, eskola barruan espazioen bidez desberdindu daitezkeen bi eremu nagusi bereizten ditu; batetik, eremu formalak: *La forma de lo escolar se caracterizaría a partir de formas de organización del conocimiento a los fines de su enseñanza, y un conjunto de prácticas que obedecen a reglas sumamente estables* (Martín, 2017, 3, or.). Bestetik, eremu ez formalak: *los contextos no formales se desarrollarían mediante procedimientos o instancias que se apartan en mayor o menor medida de las formas canónicas o convencionales de la escuela* (Martín, 2017, 3, or.).

Horrela bada, espazio desberdinak sailkatzeak horietan sortzen diren harreman ereduak ere ezberdintzea dakar, formalak edo informalak: alde batetik, harreman formalak esate baterako, ikasgelan, edo irakasle gelan gertatzen dira, espazioak horretara bideratuak daudenetan. Ordea, harreman informalak kafetegian, bazkal orduetan edo jangelan gertatzen dira, eremu informalago bilakatuz. Azkeneko hauek ere noski, eragina dute irakasleen arteko harremanetan, informalagoak izanagatik ere, lan eremuko harremanak izaten jarraritzen baitute. Kasu batzuetan baina, bertan hitz egiten diren kontuek sarri eremu pribatuko kontuekin lotura handiagoa dute. Benito Martinek (2006) Ball-en proposamenetik abiatuz hauxe dio:

Por encima de este esquema formal de roles y relaciones, hay también agrupaciones informales de carácter en gran medida emotivos, y toda clase de actitudes internas y prejuicios personales que afectan a la conducta de unas personas a otras, y a su capacidad de trabajar juntas como grupo cooperativo. (Benito Martín, 2006, 5, or.)

Gure ustetan harremanak sustatzeko unean espazio informalak esangura handiagoa hartzen dute, askatasun handiagoa eskaintzen dutelako eskolak berezkoak dituen zeregin (sarri oso hertsia eta burokratikoetatik) aldentzeko. Eta bizitza pribatuko kontuetaz aritzeko.

Viñao-k (1994) denbora eta espazioaren eraginen garrantziarekin bat egiteaz gain, pertsona bakoitzak harremanei eskaintzen dien ezaugarritze propioa azpimarratzen du;

espazio fisiko hori, espazio pertsonal eta sozial bilakatzea pertsona bakoitzaren baitan baitago: *Al fin y al cabo, el espacio, como la energía, ni se crea ni se destruye, sólo se transforma. La cuestión final es si se transforma en un espacio frío, mecánico o en un espacio caliente y vivo* (Viñao, 1994, 74, or.).

Beraz, espazioa eremu fisiko huts bat izatetik harremanetarako gune ere izan daiteke, espazio zein parte hartzaileen intentzioen arabera: *Una organización sin importar que tan bien diseñada, es solo tan buena como la gente que vive y trabaja en ella* (Gijón, 2017, 50, or.).

Espazioaren tamainari erreparatuz, eskola txikietan espazioak oso limitatuak daude eta kopuruak asko aldatu daitezke. Bat egiten dugu Feu i Gelis-ekin (2008) espazio txiki horiek irakasleak ingurukoekin duen harremana hurbilagoa eta inidividualagoa izatera laguntzen duela, denen arteko kolaborazioan eta talde sentimenduan eragina izanik.

1.2.2.2. Denbora

Espazio horren barruan, harremanak denbora tarte batean ematen dira. Gimeno Sacristán-ek (2008) dioen moduan, denbora unibertatsala da eta denok ditugu honekiko esperientziak. Ordea, hain da desberdina egoera pertsonal bakoitza ezen momento bera bizitzen ari diren bi pertsonen arteko interakzioarengan eragina izan dezaken.

Recio-k (2007) Gimeno Sacristánekkin bat egiten du eta zera gaineratzen denbora horren malgutasunari egiten dio erreferentzia. Izan ere, egunerokotasunean denbora berdinean topo egin dezaketenez ezaugarri zein pertsona ezberdin guztietara egokitze eta aldatzeko gaitasuna nabarmentzen da, eta eskolan berdin gertatzen da (Recio, 2007).

Ese tiempo que se asoma en los claustros, en los consejos escolares pero también en los espacios de encuentros informales: pasillos, sala del profesorado, patios; un tiempo no sólo próximo a las personas y sus relaciones sino que también se caracteriza por mostrar sensibilidad hacia el contexto donde se crean y se desarrollan las múltiples transacciones humanas. (Recio, 2007, 10, or.)

Beraz, argi dago espazio eta denbora batzuetan gertatzen diren harremanak mota batekoak hala bestekoak izan, pertsonaren parte bihurtzen direla: *Lugares en los que algo nuestro quedó allí, y que por tanto nos pertenecen; que son ya nuestra historia* (Viñao Frago, 1994, 19, or.).

1.2.3. Ongizatea irakasleen arteko harremanetan

Harreman horiek eragin zuzena izango dute irakaslearen ongizatean, hau pertsona baten eremu fisiko (gorputza) eta emozionalaren arteko oreka bezala ulertuz.

Ongizatea osasunaren parte da, Munduko Osasun Erakundearen (OMS) arabera, pertsona ororen osasuna ongizate fisiko, emozional eta sozialaren baitan dago: *un estado de completo bienestar físico, mental y social, y no solamente la ausencia de afecciones o enfermedades* (OMS, 1946, 100, or.).

Ongizatearen definizio hori onartuz, Bisquerra-ren (2008) arabera, ongizatea norberak bere bizi kalitatea modu positiboan antzematearekin lotua dago: *el grado como una persona juzga favorablemente la calidad global de su vida* (Bisquerra, 2008, 228, or). De Pablos eta González-ek (2012) ongizate hori eskola eremura hurbildu eta ongizateari maila pedagogikoa eskaini zioten:

El bienestar pedagógico se puede entender como la valoración cognitiva y emocional del profesorado donde la felicidad, la sensación de plenitud, la autoestima, la motivación y la satisfacción por su trabajo son algunas cuestiones que pueden influir notablemente en los niveles de bienestar del profesorado y el alumnado. (De Pablos eta González, 2012, 71, or.)

Hori lortzeko, norbere sentimenduez gain ere inguruan dauden faktoreek eragina dute: *Además de las características personales también pueden entrar en juego otras circunstancias de la vida, las variables culturales, las tendencias sociales, las situaciones familiares, etc. que condicionan este constructo* (De Pablos eta González, 2012, 71, or.).

Ongizatearengan harremanek berebiziko garrantzia dutela ondorioztatuz, eskola mailan harreman horien analisia egiterakoan bi dimentsioko harremanak nagusitzen direla ikusi da; batetik dimentsio pedagogikokoak, non eskolaren, pedagogiaren, metodologiaren etben inguruan hitz egiten den, eta bestetik, dimentsio pertsonalekoak, non elkarrizketan partekatutakoak eskolaz kanpoko edo gai pertsonalak izan ohi diren.

Harreman horiek positiboak badira, pertsona horiek eroso eta gustora sentitzen dira, giro egoki eta positiboak sortuz. Horrek, eskola bide honetik eramatera lagunduko du, motibazioz lan egitera, konfidantza giroa nagusitzera... lanarekin asebate sentitzera: *En la medida que el trabajador se siente en un ambiente de confianza y buen trato, mejores serán sus actitudes. Dicho comportamiento tendrá influencia significativa al momento de realizar las actividades que le competen con una actitud positiva* (Ramírez-Wong, 2019, 14, or.).

Profesional bezala lan eremuko zereginak gustora egin ahal izateak zorientasunerako bidea ireki dezakela dio Gijón-ek (2017) eta horrek, inguru psikosozialean oreka bat mantentzen lagun dezake, harreman positiboak indartuz.

Oreka horrek irakaslearen asebetetzea ahalbideratuko du: *la felicidad, la sensación de plenitud, la autoestima, la motivación y la satisfacción por su trabajo son*

algunas cuestiones que pueden influir notablemente en los niveles de bienestar del profesorado (De Pablos eta González, 2012, 71, or.). Horretaz gain, irakaslea motibatuagoa egongo da eskola berrikuntzen hildotik bideratzeko: *Los profesores hábiles y motivados son susceptibles de promover estrategias de aprendizaje activas y funcionales* (De Pablos eta González, 2012, 72, or.).

Aldiz, harreman horiek negatiboak edo desegokiak direnean, jarrera negatiboak nagusitzen dira eta horiek eskola komunitate osoari eragiten diote: *pueden tener una incidencia muy directa en aspectos tan decisivos como el éxito o el fracaso escolar y la eficiencia o ineficiencia de los sistemas educativos* (De Pablos eta González, 2012, 70, or.).

Hargreaves eta Fullan-ekin (2014) bat eginik uste dugu eskola eremuan aldaketa pedagogikoak, pertsonalak edota sozialak izanda ere, horiek burutzeko motibazioa ezinbestekoa dela eta ikusi bezala, horretarako ongi eta asebate sentitzea oinarritzokoa da. Beraz, irakasleen arteko harremanengan ongizate indibidualak ongizate kolektiboa ekar dezake, komunitate osoarena hain zuzen ere.

1.2.4. Irakasleen arteko kolaborazioa

Irakasleen arteko harremanak positiboak izateak interakzio horietan eroso sentitzea dakar, eta horrela, norberak jarrera aktiboa izateaz gain, taldean aritzeko prestutasun eta erraztasuna ere nagusitzen dira. Honek, talde lan eraginkorra eta kolaboratiboa sortzea ahalbidetzen du.

El buen ambiente en un centro educativo, definido en gran parte por esas relaciones interpersonales, favorece para muchos, el trabajo en equipo, la participación, los acuerdos, las iniciativas, el intercambio de conocimientos y experiencias, e incluso la manera de afrontar los conflictos. (Benito Martín, 2006, 7, or.)

Igantziko eskolako kasuan hau faktore oso garrantzitsua da, bikotekako tutoretzaren metodologiari jarraitzeko irakasleen arteko harremanak eta hauen hartu emanak baldintzapen gako baitira. Tutoreek bikoteka lan egiteak ikasle talde baten egunerokotasuneko jarduna bi tutoreren arteko elkarlanean oinarritzean dakar, horregatik uste dugu hauen arteko kolaborazioa eraginkorra izan dadin harremanak egokiak izan behar dutela.

Mesa-k (2011) aipatzen du kolaborazioan lan egiteak irakasleen arteko kooperazioa areagotzen duela, eskolako kultura profesional berri bat eraikiz. Modu kolaboratiboan lan egiteak, garapen profesionala, irakas praktiken hobekuntza eta ikasleen hezkuntza kalitatea bermatzen baitu. Aldiz, teoriak hala badio ere, modu kolaboratiboan lan egitea konplexua izan daiteke:

Una cultura de colaboración implica unas relaciones de “confianza” entre el profesorado, de apoyo mutuo, auto-revisión y aprendizaje profesional compartido. Supone la comprensión de la actividad profesional de enseñar como responsabilidad colectiva, colaboración espontánea y participación voluntaria, una visión compartida del centro y la interdependencia y la coordinación como formas de relación asumidas personal y colectivamente. Requiere condiciones organizativas para promover el trabajo conjunto, pero también actitudes de compromiso profesional. (Mesa, 2011, or. 78)

Bolaños-ekin (2015) ados gaude kolaborazioan lan egiteko irakasleen arteko harremanak eta ideologikoki antzeko ideia pedagogikoak edukitzea oinarrizkoa dela, adostasuna lortu eta bide beretik jotzeko.

Rodríguez, Muñoz eta Martínez-ek (2017) ere adostasuna lortzea praktika konplexu bezala ulertuz, irakaslearentzat zenbait jarraibide eskaintzen dituzte, hala nola, giro afektiboa sustatzea, pertsonetikiko errespetua adieraztea, berdinen arteko komunikazioa ahalbidetzea eta lanarekiko prestutasuna erakustea.

Horiek guztiak batuta ere, kolaborazioan lan egiteko Ibáñez-ekin ados gaude irakasle horren kapital profesionalak zeresanik baduela: *la cultura colaborativa en la que los maestros son capaces de trabajar, planificar y tomar decisiones con otros docentes incrementa de forma significativa los principios básicos del capital profesional* (Ibáñez, 2015, 270, or.).

Kapital profesionala beraz, profesionaltasun eta lanaren ardura hartzearekin lotzen da: *Utiliza la idea básica y poderosa de capital y expresa su importancia para el trabajo profesional, y la capacidad y efectividad profesional, en particular en la profesión docente* (Fullan eta Hargreaves, 2014, 18, or.) eta irakasleen lan eremuan zentratuz, kapital hori hiru eremu desberdinekin lotzen da, giza kapitala, kapital soziala eta kapital erabakigarria:

We call this the professional capital of teachers, which consists of human capital (the quality of the individual), social capital (the quality of the group), and decisional capital (the development of expertise and professional judgment of individuals and groups to make more and more effective decisions over time). (Fullan eta Hargreaves, 2013, 37, or.)

Hau horrela izanda, ikus dezakegu irakasleen arteko harremanetan eta kolaborazioan kapital sozialak indar handia duela, konfidantzan, kolaborazioan, ardura kolektiboan eta lankidetzan oinarritzen baita (Fullan eta Hargreaves, 2014).

Honek erakusten du eskola mailan talde lan eraginkorra sortzeko, kapital profesional altua edukitzea izango dela gakoa: *Significa desarrollar un capital profesional compartido dentro de una organización y comunidad* (Fullan eta Hargreaves, 2014, 39, or.).

1.3. Eskolako giroa eta irakasleen arteko harremanak

Eskolan irakasleen arteko harremanak nolakoak izan, halakoa izango da eskola horretako giroa, eskola bakoitzaren giroa deifinituko duena. Izan ere, giroa bertako partaideek eskolaren funtzionamendu orokorrarekiko duten pertzepzioarekin lotzen da.

Eskola bakoitzak errepikaezina egiten duen balio, sinesmen eta ohiturak ditu, eta horiekin guztiekin nolabaiteko kode moral bat sortzen da ikastetxe mailan, eskolako kultura deritzoguna.

Kultura horren baitan sortzen diren harreman interaktiboaren arabera, eskolako ikasle zein irakasleek honekiko duten pertzepzioaren arabera definitu dezakegu eskola horretako giroa (Elías, 2015). Beraz, kideek eskolari izaera ematen dion kultura hori nola jaso eta antzematen dutenaren arabera, giro mota bat nagusituko da.

El clima escolar hace referencia a los procesos de interacción que se generan entre diversos actores en un contexto y momento determinado, en el que se presenta un intercambio de estímulos, de respuestas, de compartir las diferencias o consentir las mismas de acuerdo a su nivel social y estado. (Herrera, Rico, eta Cortés, 2014, 8, or.)

Herrera, Rico eta Cortés-ek (2014) adierazten duten moduan, eskola testuinguruan arnasten den giroa orduan eta positiboagoa izan, giroa goxotzen lagunduko du eta ondorioz, bertako harremanak ere aberatsagoak izango dira, eta alderantziz.

Hori horrela, esan daiteke ikastetxe bateko hezkuntza edo irakaskuntza kalitatea ez dela soilik curriculum edo oinarri pedagogikoetara mugatzen; bertako giroak ere badu zeresanik ikastetxe horrekiko.

Hablar de calidad educativa en la actualidad, implica no sólo revisar y mantener actualizado el modelo pedagógico y los contenidos curriculares empleados las instituciones educativas, sino también incluir elementos que favorezcan una buena convivencia escolar y que sin duda posibiliten una formación integral de los estudiantes. (Herrera, Rico eta Cortés, 2014, 8, or.)

Eskola bateko giroa Arón eta Milicic-ek (2000) jasotzen duten bezala, nutritiboa edo toxikoa izan daiteke: Giroa nutritiboa izango da elkarbizitza soziala positiboa denean, pertsonen parte hartzea gustagarria dela sentitzean, ikasteko eta kooperaziorako gogoia dagoenean, krisi emozionalak partekatu eta irtenbideak bilatzeko gune dela ikustean... Eskola pertsonen alderdirik ederrena azalertzeko abagune denean.

Berriz, giroa toxikoek ingurua ezaugarri negatiboez ziprztintzen dute, pertsonen alderdirik negatiboena bilatu nahiean. Horrelako giroa dagoen eremu batean, badirudi ez dela ezer positiborik sentitzen. Modu negatibista nagusitzen denez, harremanak ere orduan eta gatazkatsuagoak dira, interakzioak kaltetuz (Arón eta Milicic, 2000).

Beraz, eskolako giroa nutritiboa edo toxikoa den esan ahal izateko ere, argi dago harremanek berebiziko garrantzia izango dutela.

1.4. Irakasleen arteko harremanak Eskola Txikietan

Eskolaren neurriak lehen begirada batean garrantzia izan dezake intentsitateari dagokionean bertan gertatzen diren harremanak eta interakzioak aztertzeko unean. Giroaz gain, eskolaren tamainak irakaslearen jarduna erabat baldintzatzen duelakoan gaude; ikasle gehiago ala gutxiago, lankideen aniztasuna, kolaboraziorako aukerak, espazio eta denbora zehatz batzuk, guraso kopurua, eskura dituen baliabideak, betebeharreko funtzioak... Aukera desberdinak eskaintzen dituzte.

Eskola txikiak landa eremuan kokatua dauden eskolak dira: *La escuela rural es la escuela de las tres P: una escuela de dimensiones pequeñas, con vocación popular y de pueblo* (Feu i Gelis, 2008, 64, or.). Ezaugarri oso bereizgarriak ditu, hala nola, ikasle kopuru txikia, irakasle gutxi, taldekatze heterogeneoak, hainbat mailatako ikasleak espazio berean, espazio txikiak eta aurrekontu apalak... izaten dituztelarik (Fernández, d.g).

Historikoki, gizarte mailan, eskola txikiek ez dute behar besteko aitortza jaso: errekurtsu gutxiago zituzten, curriculum murriztagoa, titulaziorik gabeko irakasleak, batere estimulaziorik gabeko irakaskuntza eskeintzen zen... 70-80. hamarkadan aldiz, eskola txikietako irakasle eta herritarrak beraien eskubideak aldarrikatzeko batu, eta ordura arte gizarte mailan ezaugarri negatibotzat hartzen ziren horiek, eskolaren indargune bihurtzeko ahalegina egin zuten; adibidez, ikasle gutxi izatea faktore positibotzat hartuz, ikaskuntza indibidualizatuagoa eskaintzea. Ahalegin horiei esker, komunitate osoaren parte hartzea areagotu zen, ikasleen arteko etengabeko interakzioak erraztu ziren, irakaskuntza indibidualizatu lortu zen eta modu integralaean ebaluatzen hasi ziren (Feu i Gelis, 2004). Ahalegin eta elkarlan horiek bilakatu dira gaur egungo eskola txikien oinarritzko balio.

Ildo berean mintzatzen da Bernal Agudo (2009) ere, eskola txikiek duten potentziala edo dituzten abantailak oinarritzat harturik oso eskola desberdina eta kalitatezkoa eraiki daitekeela adierazterakoan: *Debemos entender como las condiciones en las que se mueve esta escuela para buscar lo mejor desde y con estas características* (Bernal Agudo, 2009, 7, or.).

Honela, eskola txikiko ratioak hain dira baxuak ezen bertako partaide guztien eta inguru hurbilaren arteko interakzioa etengabekoa den. Dibertsitatea nagusitzen da, bai ikasleen eta baita irakasleen artean ere. Herriaren eta herritarren parte hartze aktiboagoa dago, familiekin ere harremanak estutzeko aukera izanik. Ezaugarri horiek

guztiak abantailatzat hartzeak irakaskuntza beste era batean ulertzea dakar: *lógicamente aprovechar algunas de ellas, como la cercanía o la implicación en el medio* (Bernal Agudo, 2009, 7, or.).

Era berean, metodologia berritzaile eta aktiboak aplikatzeko aukera eta beharra dago eta espazio txikiak eta taldeen egiturak aukera egokiagoa eskaintzen dute. Esaterako, eskola honek egiten duen moduan, proiektuka ikasteak aurretik aipaturiko kompetentzia horiek lortzea ahalbidetzen du, ikaslea erdigunean jartzeaz gain, arazo edo galdera batzuetatik abiatutako proiektuak eginez zenbait estrategia garatzen dituztelako.

Metodologia berriei jarraiki, garapen integrala bermatzeko garrantzitsua da inguruarekin harremana mantentzea eta berau esperimendatzea. Tonucci-k (2015) dioen moduan, haurrak bizitoki seguru eta erosoetan bizi behar dira beraien garapen fisiko, kognitibo eta soziala eman dadin. Horrela, ikasleak bakarrik mugituko dira eta ikas esperientziak beraien kabuz bizituko dituzte. Eskola txikiak honetarako bidea erraztu egiten du, inguruarekin etengabeko harremana izateaz gain, eskola bera ere leku seguru eta irakasleak ezagun bilakatzen direlako.

Leku seguru batean aritzeak beraz, elkar ezagutzeko aukera ematen du, harremanak estuagoak direlako eta ikaskuntzari begira ere, hartu emanak pertsonalagoak bilakatzen direlako.

1.5. Emozioak irakasleen arteko harremanetan

Sarreran aipatu dugu gure landa lana burutu dugun eskola Hezkuntza Emozionala bezala ezagutzen den programa batekin engaiatua dagoela. Gure ustetan irakasleen harremanak eta irakasleen egoera emozionalak oso lotura estua dute eta eskolako bestelako prozesu orokorrak baldintza ditzakete nabarmen. Irakasleen arteko harremanetan, gainontzeko harreman interpersoneetan bezala, emozioak garrantzitsuak dira. Estimulo baten aurrean, pertsona orok emozio bat sentitzen du eta horren arabera modu batera hala bestera jokatuko du: *Una emoción se activa a partir de un acontecimiento* (Bisquerra, 2014, 1, or.). Hau horrela, gizaki bezala ezin da emoziorik gabe bizi, are gutxiago eskola bezain espazio interaktiboetan.

Emozioak une batean pertsona baten egoera aldatzeko gai diren egoera afektibo bezala ulertzen ditugu, sentimenduekin erabateko lotura zuzena daukate. Hala ere, pertsona bakoitzak emozioak modu batera hala bestera bizitzen ditu eta hauen bitartez eratorritako sentimenduak ere pertsonaren arabekoak izango dira: *Un mismo objeto puede generar emociones diferentes en distintas personas.* (Bisquerra, 2014, 2, or.).

Psikologia positiboaren esparruan, emozioak geroz eta garrantzi handiagoa hartzen joan dira. Hezkuntza sistemaren helburua bizitzarako prestatzea baldin bada, emozioetan trebatzeko emozio hezkuntza eskaintzea oinarritzkoa da, hau da, emozioak garapen pertsonalaren oinarri hartzea:


Concebimos la educación emocional como un proceso educativo, continuo y permanente, que pretende potenciar el desarrollo de las competencias emocionales como elemento esencial del desarrollo integral de la persona, con objeto de capacitarle para la vida. Todo ello tiene como finalidad aumentar el bienestar personal y social. (Bisquerra, 2005, 96, or.)

Eskolan emozio hezkuntzari lekua egiteak konpetentzietan isladatua dagoen adimen emozionala garatzea ahalbidetzen du. Gardner-ek Frames of Mind (1983) liburuan, Adimen Anitzen teoriaren bidez, zortzi adimen mota desberdin zituen arren, badaude bi bai emozio eta baita harremanekin lotura zuzena dutenez gure ustetan garrantzia espezifikoa hartzen dutenak: Adimen intrapertsonal eta interpertsonala hain zuzen ere. Lehenengoa norbere emozioen ezagutza eta identifikazioarekin lotua dagoen bitartean, bigarrenak harremanen bitartez ingurukoen emozioak ezagutzeko gaitasunarekin du zerikusia:

La inteligencia intrapersonal se encuentra en el desarrollo de los aspectos internos de una persona. La capacidad medular que opera aquí es el acceso a la propia vida sentimental, la gama propia de afectos o emociones. (Gardner, 1995, 232, or.)

En forma avanzada, el conocimiento interpersonal permite al adulto hábil leer las intenciones y los deseos —incluso aunque se han escondido— de muchos otros individuos y, potencialmente, actuar con base en este conocimiento. (Gardner, 1995, 232, or.)

Goleman-ek emozio hauek ezagutu eta kudeatzeko balio duen gaitasuna adimen emozional bezala definitu zuen: *Es la capacidad de reconocer nuestros propios sentimientos y los de los demás, de motivarnos y de manejar adecuadamente las relaciones* (Goleman, 1996, 89, or.). Horregatik, harremanetan emozionalki adimentsua izatea gakoa dela uste dugu harreman positiboak edukitzeko. Adimen emozionalaren barruan, honako ezaugarri hauek banatzen ditu Goleman-ek:



Taula 1 Adimen Emozionala

Iturria: Goleman, 1996

Beraz, ikus daiteke adimen emozionalak norbere baita ingurukoengatik ongizatea barne hartzen dituela, adimen intra- eta interpertsonalak uztartuz. Bi autore hauen teoriekin bat eginik, López-Fernández-ek (2015) dio adimen emozionala harreman interpertsonal egokiak erretzen dituen pertsonon ezaugarri bat dela. Horregatik, irakasleen arteko harreman egokiak sor daitezkeen, emozionalki adimentsuak izatea oinarritzkoa izango da.

Mari Jose Ortizek dioen moduan, ikerketa klinikoek frogatu dute emozionalki kompetenteak izanik, ongizate afektibo eta sozial handiagoa lortzen dela, baita arrakasta handiagoa ere, eskolan zein arlo profesionalean. Eskola mailan emozioen lanketak eskola bera hobetuko du, gelako giroa hobetzen delako eta modu berean, baita eskolako errendimendua ere (Ortiz, 2005).

Horretarako, heziketa emozionala beharrezkoa da, nahiz eta gizakion ezaugarri bat izan, ez da jaiotzetikoa, garatu daitekeena baizik, eta hau eskolan hezkuntza emozionalaren bidez landu daiteke (Duque Ceballos, 2012).

Duque Ceballos-ekin bat eginik, eskolan adimen emozionala lantzeko, irakasleek formakuntza jasotzeko behar dute, Bisquerra-k (2005) hobesten duen moduan, bai hasierako zein etengabeko formakuntza jasoz. Horrela, ikasleak trebatzeaz gain, irakasleak pertsona moduan bere zein ondokoengatik emozioak kudeatzeko estrategiak eskura ditzake baita hauek eskola zein eguneroko bizitzako testuinguruetan aplikatu ere.

Hori horrela, garapen emozionala sustatzeko modurik eraginkorrena irakaslea bera gaitasun emozional horren erreferente izatea dela uste dugu: *Ezin da adimen emozionala transmititu, transmititzen duena ez bada emozionalki adimentsua* (Apellaniz,

GRADU AMAIERAKO LANA

2018). Horrela bada, irakasleak emozionalki kompetentea izateak irakasleen arteko harremanak onak izan daitezen teknika desberdinak eskuratzeko, honen inguruan kontzientziatzeko eta dituen baliabideak erabiltzeko baliagarria izango da.

Beraz, eskolak giro emozionalez beterik baldin badaude, emozioak geroz eta modu naturalago batean adierazi, ulertu eta errespetatuko dira, kontzientzia emozionala hedatzen delarik.

2. Helburuak

Honako GRAL honen helburua Nafarroako iparraldeko landa-eremuan kokatuta dagoen eskola txiki publiko bateko irakasleen arteko harremanak ezagutzea, emozioei eskaintzen dioten garrantzia ikustea eta bi hauen arteko elkarreragina aztertu eta interpretatzea da.

Jomuga horrekin batera, honako azpi helburu hauek ere baditu:

1. Eskola txikia izateak irakasleen arteko harremanetan nola eragiten duen ezagutzea.
2. *Hezkuntza Emozionala* aurrera eramateak irakasleen arteko harremanetan duen eragina aztertzea.
3. Irakasleak beraien arteko harremanen kontzientzia izatea.
4. Irakasleak adimen emozionalaren bitartez landutakoak beraien praktiketan isladatzen diren ikustea.
5. Irakasleek eskola honetako irakasleen arteko harremanen inguruan duten pertzepzioa ezagutzea.

3. Metodologia

3.1. Sarrera

GRAL honean aztergai den kasuaren inguruko datuak biltzeko, ikerketa metodologia kualitatiboa erabili da, pertsonen hitzak edota jokabideak oinarri hartuta datu deskriptiboak sortzen dituen ikerketa mota baita (Quecedo eta Castaño, 2002).

Metodologia kualitatiboa erabili da irakasleei ahotsa eman nahi zaielako eta modu honetara, beraien eguneroko bizipenak aintzat hartuta lan egin nahi izan delako. Flick-en (2004) arabera, hiru ardatz nagusi ditu ikerketa kualitatiboak; lehenik eta behin, interakzio sinbolikoa da, zeinetan izenak berak dioen moduan honen helburua prozesu interaktiboak eta beraz, akzio sozialak aztertzea diren. Bigarrenik, etnometodologiaren garrantzia azpimarratzen du, egunerokotasuneko gertaera edo zereginetan interakzioak nola ematen diren aztertzen duen metodologia izanik. Azkenik, eredu estruktural-psikoanalistan oinarritzen da, inkontzienteki barneratzen eta burutzen ditugu jokabideen analisi sozial zein psikologikoa eginik (Flick, 2004).

Beraz, Lincoln eta Denzin-ek (1994) ulertzen duten moduan, ikerketa kualitatiboak ikerketa objektua edo aztergaia hobeto ezagutzeko aukera ematen du, kasu honetan, gure azterketa helburua harremanak direnez, protagonisten ahotsak entzun eta horiek interpretatzeko lagungarria baita. Honela bada, ikertzaileak parte hartzen ari diren horien esperientzietan oinarrituz ikerketa gaiaren inguruko zalantzak argitzeko ahalegina egin beharko du, baina beti kontuan hartuz metodologia honen helburu nagusia protagonistei ahotsa ematea dela. Gainera, Flick-ek (2004) eta baita Parrilla eta Sierrak (2015) ere, Lincoln eta Denzin-ekin (1994) bat egiten dute metodologia honek irakaslea parte hartze arduratsuagoa izatera bultzatzen duela pareko harremanetatik abiatu eta etengabeko interakzioa mantentzen duelako.

Puede así decirse de la investigación inclusiva que es una investigación que se desarrolla “con” los participantes, “por” los participantes o “para” los participantes, pero en todo caso no es una investigación “sobre” los mismos. (Parrilla eta Sierra, 2015, 163, or.)

Ikerketa kualitatiboak parte hartzaileek eskolako irakasleen arteko harremanekiko duten pertzepzioa eta hauen esanahiak hurbiletik aztertzea ahalbidetzen du. Horrela bada, paradigma interpretatzaile batean kokatzen gara, kasu zehatz bat aztertzean. Honek esan nahi du, guk biltzen ditugunak, irakasleek beraien esandakoak direla, gure ebidentziak beraien bizipenetatik eratorriak direla eta horiek guztiak, hasierako justifikazio teorikoekin uztartuz, zenbait ondorio eta emaitza atera ditugula.

3.2. Erabilitako teknikak

Ikerketa kualitatiboa aurrera eramateko bi teknika desberdinez baliatu gara; sakoneko elkarrizketak eta argazkien analisia eta narratiba.

3.2.1. Sakoneko elkarrizketak

Sakoneko elkarrizketak elkarrizketatzailearen partetik egitura eta helburu zehatz batzuk dituen elkarrizketak dira, ez dira egunerokotasuneko beste edozein solasaldien parekoak. Honako hauetan, ideia berri eta ezagutzak eraikitzen joaten dira, erdi egituratutako gidoiaren prestakuntza eta zaintza baitago gibelean, eta entzumen ariketa sakon bat egiten da ahalik eta informazio gehien eskuratzeko. Bertan sortutako ideiek, ezagutzek, pentsamenduek eta bizipenen kontaketek elkarrizketatzaileari burutzen ari den ikerketa horrekiko bide berriak sortarazi diezazkieke, interpretazio eta ikuspegi desberdinak eskainiz (Kvale, 2011).

Horrela bada, profesional bakoitzari egokitutako elkarrizketa gidoiak oinarritzat hartu dira. Bi elkarrizketatu irakasle tutoreak direnez, abiapuntutzat gidoi bera erabili den arren (Eranskinak 2), eskolako zuzendariari beste galdera desberdin batzuk ere txertatu zaizkio, bere zenbait funtzio aldatzen baitira (Eranskinak 3). Hiru elkarrizketatuak eskola berean eta elkarlanean aritzen direnak izan dira, errealitate baten ahalik eta ikuspegi desberdinenak azter daitezzen. Hau horrela, elkarrizketetako gidoiak honako lau kategorien baitan oinarritu dira:

1. Irakasle lanbidearen izaera, funtzioak eta inguru sozialaren aldaketa historikoen eragina.
2. Eskola komunitate bezala ulertuta, eskolako harremanak eta batez ere irakasleen arteko harremanak ikastetxe honetan.
3. Eskola txikia izanik, honen eragina irakasleen arteko harremanetan.
4. Ikastetxe honetan Emozio Hezkuntza lantzeak irakasleen arteko harremanetan duen eragina.

3.2.2. Irudien analisia eta narratiba

Datuak biltzeko erabili den bigarren teknika kualitatibo hau ikus entzunezko antropologiaren barruan kokatua dagoen teknika da. Argazki baten interpretazioan oinarritzen da, non parte hartzaileari gai baten inguruko errealitatea isladatzen duen irudi bat eskatzen zaion. Irudi horrek, irakasleen bizipenak jasotzeko balio du, izan ere, irudi horiek azaltzeko narratibak sortzen dira eta horiek bilduta, kasu horren inguruko datu biltzeko eta gogoeta bideratzen da.

Las fotografías representan elementos del pensamiento práctico del docente, concretamente los que en ese momento configuran su imagen mental-experiencial y, en nuestro caso, aquellos cuyo contenido es de naturaleza conceptual. (Bautista, Rayón eta de las Heras, 2018, 151, or.)

Gure kasuan, irudi horren bitartez irakasleak hauen arteko harremanekiko duen ikuspegia isladatzen da, erabat pertsonala den narratiba bat sortuz. Bolívar-ekin (2006) ados gaude narratiba batean oinarrituriko teknika batek gizakion nondik norakoak hobeto ezagutzeko balio duela dionean, bizi esperientziak kontatzen direlako, edozein definizio edota oinarri teorikoren gainetik daudelako. *La narrativa se dirige a la naturaleza contextual, específica, y compleja de los procesos educativos, importando el juicio del profesor en este proceso, que siempre incluye, además de los aspectos técnicos, dimensiones morales emotivas y políticas (Bolívar, 2006, 45, or.)*

Ikerketa kualitatiboaren korronteari jarraiki, Bautista, Rayón eta de las Heras-ek (2018) ondorioztatzen dute honek ez duela soilik datuak biltzeko balio, kontatutako esperientzia horiek berriro bizitzeko eta beste ikuspegi bat emateko ere balio dute. Horrela, ikerketa metodo kualitatiboa izateaz gain, formatiboa ere bada, erabiltzen den prozedurak irakaslearengan hausnarketa kritiko bat egitea bultzatzen duelako; irakasleak pentsatzen jartzen ditugu eta haien praktiken inguruko gogoeta egiten dute. *Se convierte en una técnica que permite rescatar comentarios y recordar acontecimientos para profundizar en ellos, así como generar discusiones, opiniones y hacer fluir diferentes puntos de vista (Bautista, Rayón eta de las Heras, 2018, 176, or.)*

Behin argazkiak bilduta, hauen narrazioa egitea nahitaezkoa izan da irakasleak berak kontatu eta isladatu nahi duen hori ulertzeko. Bautista, Rayón eta de las Heras-ek (2012) dioten moduan, atentzioa ez da soilik argazkia edo argazki horretako akzioan jarri behar, bertan gertatzen den horrek parte hartzailearengan sortutako esanahien sakontasunean baizik.

3.3. Testuingurua eta parte hartzaileak

GRAL honen zati praktikoa Nafarroako iparraldeko herri txiki bateko eskolan garatu da, Igantzin. Eskola honek HH eta LH-ko etapak hartzen ditu bere gain. Espainiako Estatistika Institutuaren arabera, 2019ko datuei erreparatuz, herri honetan 639 biztanle bizi dira eta horietatik 60 dira eskolara joaten diren haur kopurua.

Eskolari dagokionez, eskola publikoa da eta hain herri txikia izanik, bertako eskola bakarra. Herriko haur guztiak, 3-12 urte bitartekoak, eskola honetara joaten dira. Horiez

GRADU AMAIERAKO LANA

gain, 6 irakasle tutore aritzen dira bertan eta hauekin elkarlanean beste 7 hezkuntza langile; 4 espezialista, orientatzailea, eskualdeko eskolarteko koordinatzailea eta zuzendaria.

Eskola honek eskola txikien metodologiari jarraitzeaz gain, badu bereizgarriago egiten duen beste ezaugarri bat: *Emozio Hezkuntza* lantzen da bertan. Emozio Hezkuntza 2010-2011 ikasturtetik txertatua dago programazioan eta 2015-2016 ikasturtean Nafarroako Eskola Sozioemozionalen Sare²-ra sartu zen. Gaur egun, saretik kanpo mantentzea erabaki dute, nahiz eta proiektuarekin buru belarri jarraitzen duten.

Herrian bertan dagoen eskola bakarra izatea, eskola txikia izatea eta hezkuntza emozionalari garrantzi handia ematea izan dira ikerketa lan honen interesgune nagusi. Gauzak horrela, printzipioz testuinguru honetan irakasleen arteko harremanak onak izan daitezkeen aldeko ezaugarriak dituen eskola izanda, bertako praktikak ezagutu eta aztertzea da ikerketa kualitatibo honen helburua. Horretarako, honako profesional hauek hartu dute parte:

ERREFERENTZIA KODEA	SEXUA	ARDURA
E1	Gizona	Zuzendaria
E2	Emakumea	Tutorea (LH)
E3	Emakumea	Tutorea (HH)

*Taula 2 Elkarrizketatuen datuak
Iturria: Geuk egina*

3.4. Lanaren prozedura

GRAL hau aurrera eraman ahal izateko, fase desberdinetatik igaro behar izan dugu. Lehenik eta behin, ikerketaren oinarri teorikoa eta metodologikoa antolatu dugu, horretarako errebisio bibliografikoa eginez eta gai honen inguruan adituek diotena landuz. Behin oinarri hori edukita, bigarren fasera jo dugu, errealitate jakin bat ezagutzera hain zuzen ere. Fase honetan, aukeratutako metodologia erabiliz, zenbait

²² Nafarroako Eskola Sozioemozionalen Sarearen baitako egitasmoa: Nafarroa mailan ikaskuntza emozionala eskaintzen duten eskolen sarea da. Eskola hauek hezkuntza emozionalaren bitartez ongizate pertsonal eta soziala handitzea dute helburu eta horretarako, zenbait formakuntza eta proiektu bateratzen dituzte.

GRADU AMAIERAKO LANA

azterketa egin eta datu batzuk biltzea lortu da. Azkeneko fasean, kasu erreal horretan bildu diren datuen analisia egin eta zenbait emaitza atera ondotik, fase guzti hauen arteko loturak eginez gaiaren inguruko zenbait ondorio ateratzea lortu da, hobekuntza proposamen batzuekin bide berriak eraikiz.

Lehenengo faseari dagokionez, gaia finkatu eta honen inguruko bilaketa zientifikoa egin da. Bigarren faseari ekiteko ordea, prozedura konplexuago bilakatu da. Metodologian zehazturiko elkarrizketako datuak modu egoki batean biltzeko prozedura bat jarraitu da: lehenik eta behin, elkarrizketa horiek gidatzeko gidoiak prestatu dira eta gidoi horiek eskolan aplikatu ahal izateko baimena eskatu zaio ikastetxeko zuzendariari (Eranskinak 4). Zuzendariaren oniritiza jasota, ikerlaria ikerketan parte hartuko duten irakasleekin harremanetan jarri da, zenbait argibide emanez. Prozesu horretan aztertuak izan diren irakasle tutoreei nahiz zuzendariari ere baimen orri bat eman zaie, ikerketa zein pribatutasun eta datuen erabileraren ingurukoak adieraziz (Eranskinak 5).

Ikerketa lana aurrera eramateko aurretik aipaturiko Igantziko Eskolako hiru profesionalen laguntza behar izan da, eta kontuan izanda zein den lan honen helburua eta ikertzaileak bertako langileekin duen tratua, zuzendari eta ikertzailearen artean hautatuak izan dira.

Elkarrizketak burutzeko, irakasleen lan orduak erabili dira, baimenak irakurri, sinatu eta ahotsa grabatzeko aukera izanik, grabagailua piztu eta elkarrizketei hasiera eman zaie. Datuak ahalik eta zintzoenak izateko, giro lasaia eta konfidantzazkoa sortzea saiatu da, nahiz eta kasu honetan, ez den ahalegin berezirik egin behar izan, irakasleak ezagunak baitira.

Bukaeran, eskertua azaltzeaz gain, argazkien analisia eta narratiba egin ahal izateko argibideak azaldu eta datorren bilerarako data hautsi da. Hala, ordurako irudiak ekarri eta bigarren teknika kualitatiboa martxan jarriko litzateke. Zoritxarrez, hasieran aipatu gisan, COVID-19aren krisiak bete-betean harrapatu gaitu ikerketa lan honetan, eta teknika hau burutu ahal izateko bestelako irtenbideak bilatu behar izan dira.

Irakasle bakoitzaren egoera pertsonal eta prestutasunera egokituz, hiru profesionaleri Igantzin irakasleen arteko harremanak irudikatzen dituzten irudiak posta elektronikoz bidaltzea eskatu zaie, hauen analisia egin eta gero, era alternatibo batean argazkien narratibak biltzeko.

HH-ko zein LHko irakasle tutoreek igorritako irudien narratiba idatziz bidali digute. Zuzendariarekin ordea, narratiba modu telematikoan gauzatu da, "Whatsapp" aplikazio bidezko bideo-dei bidez. Azken honek, 25 minutuko iraupena izan du eta aipatzekoa da,

modu telematikoan egin den bideodeian, GRAL honetako zuzendariak ere parte hartu duela.

Azkeneko faseari dagokionez, lortutako datuak lehenengo fasean bildutako oinarri teorikoekin uztartuz zenbait ondorio ateratzea lortu da. Amaitzeko, ikerketa honi esker jasotako ezagutza berri eta esperientziei esker, eskola honetara bideraturiko zenbait hobekuntza proposamen idatzi ditugu, ikerketa lerro berriak irekiz.

4. Emaitzak

Emaitzen atal honetan, interesgune izan den ikastetxeko bi irakasle tutore eta zuzendariarekin praktikan jarritako bi tekniken bitartez lortutako emaitzen kontaketa eta interpretazioa azaltzen dira. Emaitzak aurkezteko, sistema kategoriala erabili da, hau da, lortu nahi den informazio hori eskuratzeko aurretiko azpigai batzuk zehazten dira eta modu honetan, pertsona desberdinen ebidentziak sailkatu ditugu: *grandes agrupaciones conceptuales que en su conjunto dan cuenta del problema a investigar, tal y como se lo define y acota en la investigación* (Echeverría, 2005, 10, or.).

Autore honekin ados gaude sistema kategoriala erabiltzeak ordena eta koherentzia mantentzen duenaren ideiarekin, izan ere, kategoria desberdinetatik jasotako datuek lotura zuzena dute aztertu nahi den kasuarekin eta horrela, errazagoa izan daiteke zenbait ondorioetara iristea: *se construye una integración interpretativa que busca situar las categorías y tópicos dentro de una red de sentido, que posibilite construir esquemas de distinciones que apunten a responder las preguntas iniciales del estudio* (Echeverría, 2005, 12, or.)

Honela bada, honako hauek izan dira elkarrizketetatik emaitzak ateratzerako orduan erabilitako analisi unitateak:

1.Analisi unitatea	Irakasle lanbidearekiko pertzepzioa
2.Analisi unitatea	Irakasleen arteko harremanak
3.Analisi unitatea	Espazioaren garrantzia
4.Analisi unitatea	Irakasleen ongizatea eta adimen emozionala

Taula 3 Sakoneko Elkarrizketako Analisi Unitateak

Iturria: Geuk egina

Irudien analisia eta narratiba egin ahal izateko, batik bat irakasleen arteko harremanen analisi unitatea hartu da kontuan. Horrela bada, irudi horietan irakasleen arteko harremanak nola azaltzen diren analizatzeaz gain, parte hartzaileen narratibek irudi horien gainean harreman horiekiko kontatu dizkigutenak bildu dira.

Zuzendari eta bi irakasle tutoreengandik lortutako emaitzak banantzea erabaki da, ikuspegi desberdina eskaintzen baitigute. Lehenengo, tutoreen (E2 eta E3) sakoneko elkarrizketetatik lortutako emaitzak modu bateratuan azaltzen dira. Aldiz, irudi eta hauen narratibak, elkarrengandik bananduak daude, desberdinak baitira. Ondotik, zuzendariaren (E1) elkarrizketatik nahiz irudien analisi eta narratibatik ateratako emaitzak daude bilduak.

4.1. Irakasle tutoreen eskutik jasotako emaitzak

E2 erreferentzia kodeduna Igantziko Eskolako egungo Haur Hezkuntzako irakasle tutore bat da. Hortaz gain, eskolako ama ere bada eta irakaskuntzan 12 urte daramatzen arren, Igantziko eskolan aurten laugarren urtea izango da. Herrian bertan bizitzeak eta eskolako irakasle zein ama izateak ikuspegi desberdinetara zabaltzeko aukera eman digu.

E3 ordea, eskola honetako lehen hezkuntzako hirugarren zikloko irakasle tutorea da. Irakaskuntzan lau urteko esperientzia izanik, Igantziko eskolan lehenengo urtea du. Emakume gaztea izatea, eta eskolarekiko pertzepzio berriak edukitzea izan dira E3ren bitartez datu bilketa egiteko arrazoia.

4.1.1. Sakoneko elkarrizketak bi tutoreekin

1. Kategoria: Irakasle lanbidearekiko pertzepzioa

Lehenengo bloke honetan, irakaslearen gaur egungo lana izan da abiapuntu. Horretarako, gibelera begiratu eta oraingo egoera arteko analisia egin da, irakasle bakoitzak bere lanarekiko duen pertzepzioari buruz galdetuz. Hau horrela, egoera horrek bere egunerokotasuneko lanean eta harremanetan dituen eraginak ezagutu nahi izan dira.

Irakaslearen funtzioari dagokionez, eskola honetako bi tutoreek bat egiten dute irakaslearen lanean aldaketa sakonak eman direla. Beraien ikasle garaian irakaslea zen protagonista eta orojakilea, eta hark zioena liburuaren teoriarekin batuz, buruz ikasi eta azterketan hustutzen zen burua. Edukiek zuten garrantzia, ez estrategiek.

Gaur egun aldiz ikasleen nahi eta beharrak abiapuntutzat harturik ikaskuntza prozesuaren garapena ematen da, ikasle aktiboa izanik: *ikusten dugu ikasleek ze ikasi nahi duten, ze interesatzen zaien ta abiatzen gara hortik, suposatzen da proiektuak hori*

direla, ikasleen behar horretatik abiatuz sortzen den ikaskuntza bat (E3). Proiektuen bidez lan egitea aberasgarriagoa da bai irakasle eta baita irakaslearentzat ere, nahiz eta denbora eta prestaketa lan gehiago suposatzen duen. Izan ere, eguneko zereginak ikasleen norabideen baitan mugitzen dira, irakaslea bidelagun izanik: erantzunaren arabera aldatzen da, ta pentsatua zenuna hankaz gotti duaie ta pres egon behar duzu aldaketarako (E3).

Irakasle eta gurasoen arteko harremanetan ere aldaketa nabarmenak izan dira. Lehen irakaslearengan konfidantza osoa zegoen, hark esaten zuena ez zen zalantzan jartzen. Orain ordea, gizarte informazional honetan gai desberdinen inguruko ezagutza, pentsamenduak eta filosofía propioak garatzearen ideia hedatua dago eta horrek maiz irakaslearen lana zalantzan jartzen du: *orokorri gizarin denak dakigula denari buruz ta gurasuk baita ere badakitea pilla bat ta ordun gure lana zalantzan patzen dutela bai nabaritzen dut giro hori (E2). Irakaslearengan intseguritatea sortzen du horrek: ez dakit beldurra den, errespetua bai(E2).*

Hala ere, konfidantza dagoenean lana lasaiago egin daiteke, segurtasuna nagusituz: *norbait kusten bazu zure lana zalantzan patzen, hor buf, bai ematen dizu kili – kolo patzeko zure burua (E2). Konfidantza baldin badago, komunikazioa ere bai eta elkar ulertzeko interesak areagotzen dira.*

Hemen adibidez, jua den urtin sartu ginelik proiektuen istorio hontan, gurasoen antziñin egin zen bilera hartan eta joe, pues ikusten da azkenin denak sinesten dugula gauza berin, denen artin rollo onak izatik laguntzen du, ta pues in bar dugu hau, pues bai tira, konfiantzaz. Azkenin gara familia bat, hala da. (E3)

2. Kategoria: Irakasleen arteko harremanak

Familia bat izateak eragin zuzena du eskola komunitate osoan sortzen diren harremanetan. Harremanak errespetuzko eta konfidantzazko tratu on bezala ulertzen dituzte bi irakasleek: *eroso sentitzen naizen momento edo leku bateko hartu emana (E2) eta momento txarretan ondoan dauden horiekin gertatzen dena (E3). Harreman txarrak aldiz, min ematen duten eta errespeturik gabekoak diren hartu emanekin lotzen dituzte: aditzeko prest eztaudenak (E3) edo errateko modu okerrak (E2).*

Eskolan modu berean gertatzen dira harreman horiek; nahiz eta bertako kideek modu batera edo bestera pentsatu, errespetutik irtenbideak bilatu daitezke, elkarlanean arituz. Horretarako, norberak bere iritzia emateko aukerak eduki behar ditu eta horiek konfidantzaz adierazi: *Ikusten bazu zu errespetatua zarela lasai zaude, gauzak konfidantzaz erraten ttuzu (E2).*

Pertsona bat gustora dagoen bitartean, eskolara lasai eta gogoz joango da. Horrek bertan giro positiboa nagusitzea dakar, harreman onak nabarmentzen direlarik: *eskolan*

erlazio ona baldin badago, eskolara heldu gara konten, konten ongi nagolako (E3). Harreman on horien ondorioz, konfidantza areagotu, norbera asebate eta talde lanean arituko dira bertako langileak. Horrela, metodologia kolaboratiboek partaide bakoitzak bere sentimenduak eta bizipenak elkarbantzeko aukerak ematen dituzte eta horrek elkarri babesa ematen dio: *konfiantza bada ta azkenin kontatzen ttuzu gauzak ta bertzik zuri. Horrek itten dizu seguro sentitzia. (E3)*

Aldiz, eskolan giro negatiboa eta harreman txarrak nagusitzen badira, bertaratzerako aurreiritziak erabat ezkorrek dira, gogo eta motibazio falta nagusituz: *giro txarra badago, beldurra. Ai ama, gaur ze pasatu behar da? Ze errango diate? (E3).* Denbora asko ematen da espazio honetan eta bertan gustora ez egoteak sekulako pisua dakarkio irakasleari: *goizin ernatu ta, ze pereza jende honengana juatia, kili- kolo dagoen harremana, ta modu hortan eguna hastia...(E2).*

Eskolako giroaz gain, pertsonalki ere aldi emozionalak eragin zuzena du norbere lanarekiko: *Emozionalki ezpazaude ongi denak molesten du, ta imajinatu, batzutan denak gaude bajoxigo ta bertzetan hobekigo, biño eskolara bajo zauden hoietan etorri ta ez egotia giro onik do harreman on bat. Eske hor motxila kargatzen zaizu(E2).* Horregatik oso garrantzitsua da giro positiboa nagusitzea, irakasle bezala asebeteta sentitzeak ikasleek jasotzen duten horrengan eragina izango du, gainontzekoan *itxera alletu ta: gaur eztut izan pazientzirik, ta beraiek (ikasleek) eztute kulparik (E2).*

Eskola honetan ikasi dutena, edozein gauza pasatzen dela, kontatzen badut, azkenin lankidik ere badakite zer duten ta beraiek ere hor daude animatzeko eta babesteko. Egoera txar hoietan, igual nahikua da -benga ongi ari zara- bat. Nik uste, kontatze horrek laguntzen digula bata bertzia hobekigo enteintzen ta denan artin antziñera ateitzen laguntzen garela (E3).

Hala eta guztiz ere, norbere bizipenak partekatzeko une guztiak ez dira berdinak, harreman mota desberdinak sortzen baitira egoera formal zein informaletan. Badaude espazio zein denbora desberdinetan gertatzen diren harremanak: *momentua aukeratzen dugu, irakasle gelan lan orduak direnez bertzelako hartu emanak daude, bazkari ordun ta kafin bertze gai batzuk daude... harreman onak halare. (E2)*

Espazioa eta denboraz gain, irakasleen arteko harremanetan ere desberdintasunak egon daitezke, elkar ezagutzen diren denboraren arabera, gustoen arabera, interesguneen arabera... Lehenengoak, nahiz eta alderdi positibotik antzematen dituen desberdintasunak aitortu du irakasle batzuek elkar gehiago ezagutzen dutela, denbora asko dutelako elkarrekin lanean: *nolakuk diren, ze gusto ttuzten, beraien ingurua zein den, hemendik kanpokoa do familia do... Badute elkarren jakintza gehio, iual guri buruz egunerokun ateitzen da ta elkarrerri buruz gehio ikasten*

guazi (E2). Bigarrenak aldiz ez du berezitasunik nabaritzen: orokorrin hagitz rollo ona dugu; harremanetan egon naizenetako eskola hobena hau da, dudik gabe (E3).

3. Kategoria: Espazioen garrantzia

Eskola txikietako eta handietako errealitateak ez dira berdinak eta irakasleek ere nabaritzen dute: *eskola haunditan nik banun sensaziua egunero izautzen nula jende berria, abendun uaindik iual jende berria (E2) eta eskola txikian harremanak hurbilagoak dira, bai espazioak eta baita egoerak ere hortara eramaten duelako: haunditan harreman horiek aunitzez hotzaguk dire ta eztuzu holko aukerarik beraiek izautzeko ere. Azkenin egoitzak eztizu laguntzen (E3).*

Eskola txikietako harremanak hurbilagoak dira, hartu eman handiagoa dago eta eguneko momenturen batean behintzat interakzioen bat sortzen da: *Familia bat gara, hain txikia izanik, eskola hain txikia izanik irakasle gutti gaude, familia bat gara eta ikusten ahal dugu elkar egunero egunero egunero, ez bada goizin da jostaldin, ez bada jostaldin eskusibetan (E3).*

Instituzio mailan ere, eskola handietan ez dago pertsonalizaziorik, hau da, langileak zenbaki hutsak dira, eta zuzendaritzak ere horrela kontenplutzen ditu:

Zuzendariak beti erran izan digu ta eskertzen da: Lana? bai lana bai, biño lehentasuna duzue zuek. Azkenin gara pertsonak, pertsona batzuk tortzen garenak lanera ta neretzako horrek badu ikagarritzko garrantzia. Azkenin, gaude baloratuk pertsona bezala, ez langile bezala. Edozein gauza duzuela? Lehenbiziko familia, itxia...eskola bigarren mailakua da, lana. Azkenin holako zuzendari bat izatia ta holako gauzak erratia eskertzen da (...) horrek harremanetan eragina du. (E3)

Beraz, irakasle hauen ustez txikia izateak hezkuntza kalitateari begira abantaila gehiago ditu desabantailak baino. Azken hauengatik galdetzerakoan, nagusiki bi arrazoi eman dituzte: *Azkenin elkarrekiko badugu hainbertzeko konfiantza ta harreman estua, momento batin eskola txiki bezala herri bat garela ta eskola handira juatin hori hausten da (E3) eta pentsa etorri ta eztuzula eraikitzen zure giroa harrapatzen, pues egunerokotasunin hori eramateko...(E2).*

4. Kategoria: Irakasleen ongizatea eta adimen emozionala

Teoriarekin bat eginez, gizakiok emozioen baitan bizitzen gara: *Emozioak oinarri dire harremanetan, azkenin beti gaude emozioekin gotti-behetti, ezpagaude triste gaude konten edo bertzela haserre. Emozioak hor daude, ez gaude inoiz ere emoziorik gabe (E3).*

Horrela bada, ikastetxeetan beharrezkoa da adimen emozionala lantzea, emozionalki gizarte orekatu bat lortu ahal izateko. Pertsonalki ongi egotea garrantzitsua da harreman sare osasuntsu bat eraiki ahal izateko: *lehentasuna du zure barrenko*

korapilo hori lisatziak (E2). Hala ere, eremu eta giro guztiak ez dira egokiak izaten emozioen inguruan libreki hitz egin ahal izateko: *emozioen kontun talde ttiki batin errexago lisatzen gara* (E2). Horregatik, txikitasunak lagundu arren, irakasleek ahalegin berezia egin behar dute.

Azken hau batez ere, tutoritzako orduetan egiten dute: *Tutoritza horretarako bereixten dugu* (E2) eta *hasiera hasieratik goxatzen saiatu, beurek ere ikusarazi ta sentiarazi hemen ongi egotten dela, beraiek ikus behar dute beraien gurasuk badutela gurekiko konfiantza, beurek ere nabaitzen dute ongi egongo direla* (E3). Horretaz gain, ikasgelaz kanpo kookatzen diren proiektuko ekintzek, hala nola, margoketa, yoga eta antzerkiak, errefortzu handia suposatzen dute adimen emozionala lantzeko.

Horretarako guztiarako formakuntza beharrezkoa da, bai modu pertsonalean norbere emozioak kudeatu ahal izateko eta baita ikasleei ere beraienak kudeatzen erakusteko: *Donna Apellaniz-ek estrategiak irautsi zizkigun. Irakaslin artin ikastarun gauza aunitz izan ziren kontaktua billatzeko, pues hori uain lankidiri besarkada bat ematerako ordun nabaitzen dugu, hortan hurbildu gara gehigo* (E3).


Beraz, argi ikus daiteke garrantzitsua dela norberak bere emozioak kudeatzeko prozesua bizitzea gero ikasleak ulertu eta beraiekin hobeto lan egiteko. Maiz zaila izaten da ikasleei eskatutako hori irakasleak berak aplikatzea, baina ahalegina egin behar du eta norbere jarrera eta parte hartzeekiko kritikoak izan: *kontzientzia martxan paratu* (E2) eta *modu kritikun nire buruan jokaerak aztertzeke baliyo izan dila? Bai* (E3).

Horrela, egunerokotasuneko harremanetan eragina izatea lortu nahi da, bai ikasleekin baita irakasleen arteko harremanekin ere. E2-k adierazten du *Emozio Hezkuntzarik* gabe eskola honetako harremanak desberdinak izango liratekeela: *kontzientziazio maila bat badago emozio arloan, baita gurasoen aldetik ere, hemen lanketa luze bat dago*. Aldiz, E3-k ez du horrela pentsatzen, baina aitortzen du oraingo ikuspegitik begiratzea ez dela berdina, izan ere, *orain dena bizittu dugu, proiektua kentzen badigute seguro segittuko genukeela, ikusi dugulko ze eragina duen. Hontan sinesten dugu, orain arte solastu, solastu, solastu... egin dugun bezala, gorputzen bidez ere ohartu gara emozioak adierazten ahal ttugula, ikusi eta bizittu* (E3).

Emozioen lanketa honetan ikaslearen emozio gaitasunaren garapena ebaluatu ohi da, ikaslea bera eta prozesua. Baina irakasleak nola sentitu diren eta hauen eboluzioa aztertzeke aukerarik ez dago: *Hor bai gaudela blokeatuk... nik uste balorazioa beharko lukeela, ze balorazio hoiek balio diote hurrengo irakasliri ikusteko zerk funtzionatzen duen eta zerk ez... beti hankamotx* (E3).

Orokorrean eskola honetako irakasleen arteko harremanen balantzea egin beharko balitz, esan daiteke oso giro positiboa nagusitzen dela: *giro hagitz positiboa dugu, beti bada zerbait notak direla, klaustroak direla, ikastaroak direla... baina momento horietan badago taldean umore puntu bat aurrera egin ahal izateko erabiltzen dena* (E2). Harreman horietan, irakaslea zaintzen da eta *hori ez da leku guztietan pasatzen* (E2).

4.1.2. Irudien analisia eta narratiba E2-rekin



E2: Irudi honekin adierazi nahi izan dut, nola irakasle bakoitza gure bizitzako bide batetik gatozen, eta nola ikastetxean topo egiten dugun lan talde bat osatuz, eskola barneko sare bat osatuz, beti ere ikastetxearen helburu komun horiek denen artean aitzinera ateratzeko. Bertan, lan talde horren osaketan, nire lan taldeak, taldekide sentiarazi nauelarik.

1.Irudia "Bide desberdinak, helburu komunak"



E2: Lan talde horren parte ez da normalean zure hautua izaten, egokitzen zaizun postua hartzea dagokizu sarritan.

*Nire kasuan, ikastetxean sartu nintzen, inor ezagutu gabe. Ikastetxean berria izanik ere, nire ideia, pentsaera, proposamenak, ... ikastetxean urteak daramatzaten irakasleen zein zuzendariaren ideia eta proposamenak **bezain baliotsuak eta errespetatuak izan dira**. Baloratua sentiaraztea eragiten dit.*

2.Irudia "Guztionak balio du"



*E2: Aipatu dudun gisan, nire ideia, proposamen, pentsaera, ekintzak, gogo aldarteak, momentu onak, ez hain onak, ... entzunak izaten dira, **nire ongi izatearen ardura dutela erakutsiz**.*

3.Irudia "Aditua izatearen garrantzia"



4.Irudia "Momentu goxoen balioak"

E2: Irudi honekin adierazi nahi izan dudana da, gure "gauzak" elkarbanatzeko tarte onak sortuak ditugula. Izan alor profesionalekoak (eskolako aferak, gelako kontuak, ...) edo alor pertsonalekoak. Gure kafe momentuak elkartrukeak izan ohi dira, aberasten nauten elkartrukeak.

4.1.3. Irudien analisia eta narratiba E3-rekin



5.Irudia "Bestatako ostatua"

E3: Irailan eskolan hasi eta segituan herriko bestak ditugu. Eskolako guraso elkarteak dirua ateratzeko ostatua jartzen du; bestetako lehenbiziko egunean eskolako irakasleek lan egiten dute bertan.

Kurtso hasiera izanik eta 8 bat orduz gure egunerokoa ez den lan batean aritzeak elkarrekin dugun harremana estutu egiten du. Aunitzetan elkarri laguntza eskatu, hau nola da, bertzea non dago, lagundu mesedez honetan...

Irakasleen arteko harremana estutzeaz gain eta elkar hobeki ezagutzeko aukera emateaz gain; egun horretan herriko guraso eta jendea ezagutzeko aukera ematen digu ekintza honek. Gu ere irakasle izateaz gain, besta eta saltsa horretan murgiltzen gara



E3: Konfinamendu garaian eskolatik etxeko giroa alaitu nahian hainbat bideo grabatu ditugu. Lehenbizi zer grabatuko genuen aukeratu eta pentsatu, gero nola egin, zer arropa edo tresna beharko genituen adostu eta jarraian eszenak grabatu. Guretzako ohikoak ez diren jarduerak dira hauek mozarrotuak, elkarrekin dantzan, umore haundiko momentuak bizitu ditugu.

Guzti honek gure arteko harremana estutu egiten du eta elkarrekin gustura produkzio ezberdinak burutu ditugu; elkarlanean helburu zehatz bat lortu dugu.

6 eta 7. irudiak “Eskolan ez ohikoak diren ekintzak egiten”



E3: Urtebetetze ospakizunak, etxean egindako bizkotxoak... nahiko izaten ditugu jostaldietan irri artean elkarbanatzeko.

Hauez gain irakasle batzuk (kanpotik etortzen direnak) egunero elkarrekin bazkaltzen dute. Ortziraletan berriz, ia irakaslegoaren gehiengoa Lesakara joaten da bazkaltzera.

Hiruhilabete bukaera bakoitza bazkari edo afari batekin bukatzen da eta tarteka bada ere, pintxopoteren bat egiten dugu.

8. Irudia: “Hamaiketako goxoak, bazkariak eta afariak”

4.2. Zuzendariaren eskutik jasotako emaitzak

E1 erreferentzia kodea duen profesionala gaur egungo Igantziko Eskolako zuzendaria da. Irakaskuntzan 31 urte daramatza eta Igantziko eskolan 18. Zuzendaritzatik eskaini dakiguen ikuspegi desberdina izan da interesgune zuzendaria parte hartzaile aktibo izateko.

4.2.1. Sakoneko elkarrizketak zuzendariarekin

1. Kategoria: Irakasle lanbidearekiko pertzepzioa

Eskola honetako zuzendariak, irakasle tutoreen gisan egungo irakasleen papera asko aldatu dela aitortu du, ikasleak eskolara ikastera etortzen dira; *IKASI letra larriz (E1)*. Horrek esan nahi du metodologia aktiboak erabili behar direla, non irakaslea ez den protagonista ezta orojakilea ere. Hortaz gain, ikaslearekiko ikuspegiak ere mintzatu da, esanez irakasleak bere burua ez duela honen gainera ikusten, *ez da gehiago ezta gutxiago ere. Ez da berdina, ze hau ez den demokrazia, baina osotasunean ikusten zaio (E1)*.

Ikasleak eskolara ikastera doaz, ez bakarrik matematika ikastera, pertsona izaten ikastera ere bai eta hori eskolaren lana bezain garrantzitsua familiarena ere bada. Zuzendariak aitortu du, familien aldetik ez duela guxtiespenik bizitzen, eskola honetan behintzat: *Beti badaude zarata handia ateratzen duten gurasoak baina orokorrean, elkarlana nabari da (E1)*. Hala ere, aitortu du gaur egun denok barneratua dugula edozein gaien inguruan iritzia emateko eskubidea:

Nire errespetu guztiarekin ez dut uste posible denik. Gauza bat da aita edo ama bezala hezitzea zure seme-alaba ta beste gauza bat da irakasle bezala. Ez da iguala. Ordun aldaketa uste dut dela metodologikoa edo pedagogikoa...baizik eta gizartea aldatu dela. Etxean oso disziplina handia izatetik, askatasun osoa ematera ta, nire semea ez da gaiztoa, nire semeak dena ondo egiten du, nire semeak ez du errurik, nire alabak ez du halakorik egiten... ez da hola. Hortan bai aldatu dela, baina gutxiengo bat da (E1).

Zuzendariaren funtzioei dagokienez, hiru helburu nagusi bereizten ditu: Lehenik eta behin, hezkuntza departamentuak nahi duen zuzendari profilaren lanak egin behar ditu: *gestoreak dira, kudeatzen dituztenak eskolaren funtzionamenduak baina oso modu burokratikoan, paperak, zenbakiak, zifrak, portzentaiak, txostenak... hori egon behar da, baina neurrian (E1)*. Bigarrenik, irakaslearen artean giro ona izatea lortu nahi du, eta giro ona ez baldin bada, errespetuzkoa behintzat, eta horretarako zuzendariak lagundu eta erantzukizun hori hartu behar du: *irakasleak klaseak eman, eta nik marroi guztiak hartuko ditut, zuen bizkarrak zainduko ditut, zuek egin zuena, hori da nik egiten dudana, batzuetan lortzen ez dudana arren, baina hori da helburua (E1)*. Azkenik, helburu pedagogikoa dago: *eskolaren norabidea zuzentzea, motibatzea irakasleak, eskola bat sortzea (E1)*.

Hala ere, ez du bere burua lidertzat hartzen: *ez da inorren liderra; zuzendaria dago irakasleak babesteko, laguntzeko eta bideratzeko, punto. Lidertasun hori bakarrik modelo pedagogikoan, metodologiaren aldetik ikusten dut, eskolaren nortasun aldetik, baina besterik ez, bat gehiago da, beharrezkoa dena (E1)*.

2. Kategoria: Irakasleen arteko harremanak

Irakasleen arteko harremanei dagokienez, zuzendariak dio hauen oinarrian errespetua eta batez ere enpatia daudela: *enpatia ez bakarrik bestearen azalaren azpian sartzea, baizik eta guretzea, laguntzea eta kezkatzea* (E3). Modu honetara, talde lana sustatu eta denen arteko kolaborazio eta konpromezuaren bitartez emaitza hobeak lor daitezke eskola mailan, baita harremanen kalitatean ere.

Elkarlan hori giro ona izatearen ondorio da, baina horretarako irakasleak gustora etorri behar du eskolara eta hori partaide guztien erantzukizuna da: *zure lana gustatu edo ez, inguruko pertsonak zaindu behar dituzu, lankideak hor daude beti, zaindu behar dira, osasuna baitira* (E3).

Denen arteko elkar zainketa hori gauzatuz gero, irakasleak eskolara gustorago joango dira, lan egin daiteke, besteen proposamenak onartzeko prest daude, baita beraienak proposatzera ausartu ere, eta irakaskuntza mailan ere emaitza hobeak lortzen dira, laburbilduz, asebetek sentitzen dira egiten ari diren horrekin.

Horretarako irakasle bakoitzak bere aldetik jarri behar du, hau da, denen ongizatea bermatzeko ahalegin berezi bat behar da: *hemen bakoitzak dugu paper bat, baina kafea hartzean beste paper bat, ni hor ez naiz zuzendaria, ez dakit, desberdina da* (E3) baina argi dago denbora eta espazioaren arabera paper horiek aldatzen joaten direla, harreman mota desberdinak sortuz.

Eskolako espazioan zein eskolaz kanpo elkarri denbora eskaintzeak ere eskola horretako harremanengan eragin zuzena dauka: *pintxopotea egiten dugu, eskolaz kanpoko bizitza izaten saiatzen gara, persona bezala... baina helburu bakar batekin, denen ongizatea, hemen eskolan, ongi egotea* (E1). Harreman horiek osasuntsuak izateak norberari onurak ekartzeaz gain, talde osoari eragiten dio: *Helburua ez da hemen kuadrilla osatzea, elkarbizitza zaintzea da helburua* (E1).

Nahiz eta kasu honetan horrela izan, zuzendariak elkarbizitzarengan eragina duen beste faktore garrantzitsu bat azpimarratu du; kapital profesionala:

Badire profesionalak ez direnak profesionalak; ez dakite lana egiten, ez dituzte haurrak maitatzen, gaizki tratatzen dituzte, lanarekin konprometitzen ez direnak... Horiek ez ditut gustuko eta ez ditut onartzen, niri pertsonalki etzait gustatzen eta izan ditut. Hau lan bat da, nik ez dut inoiz eskatzen ordu gehiago sartzea, baina ordu horietan in behar da lan, kobratzen dugu, kriston lanbidea dugu eta hemen gaudenean in behar da lan. Irri, txiste, bos minutukoko atsedena, 10 minutukoak, katxondeo...ongi, baina lana. Batzuk ez dakite hori egiten, edo ez dute nahi eta hori etzait gustatzen, giro txarra sortzen da, edo aitzakiak. Batez ere da hori, profesionaltasun falta. Pertsona bezala izandako arazoak direnean, orain ni nire esperientziatik badakit bideratzen ahal ditudala. (E1)

Kapital profesionalaz gain, pertsona bakoitzaren aldi edo nortasun emozionalari ere bere garrantzia eskaintzen dio, batez ere harreman txar horietan isladatzen direlako: *lankidea gutxietsi, eskola horretan denbora gehiago izanagatik hobea izatea pentsatzea, ... baina beti, beti, beti dira intseguritatea, beldurra eta autoestima baxua* (E1). Pertsona bat emozionalki ongi ez egoteak, inguruko pertsonak kaltetuak izateko arriskua dago, *beti daude irakasle batzuk besteen oniritzia lortzeagatik norbaiten kontra joaten direnak* (E3) eta hori ez da batere aberasgarria eskola horretako harremanei begira.

Hala ere, pertsonok eskubidea dugu emozionalki ondo ez egoteko *baina kontziente izanda, erregulatu, zaindu, komunikatu, laguntza eskatu... behar da* (E1).

3. Kategoria: Espazioaren garrantzia

Harreman horiek zaintzea bideragarriagoa da eskola txikien kasuan eskola handietan baino, irakasle kopurutik hasita. Aniztasun eta kopuru handiagoa dago eskola handietan eta zuzendariaren zereginak ere desberdinak direnez, denbora gutxiago eskaintzen zaio harreman horien zainketari:

Mesfidantza handia dago, jendea ez da irekitzen, bakoitza dago bere gelan, da hiri handi bat eskolan. Baina hemen, eskola txikian gara familia bat, bakea, lasaitasuna, normaltasuna eta harreman aberatsak daude, baina ez bakarrik irakasleen artean, hurrekin ere, familia bezala gara, familiarekin, herriarekin... (E1).

Beraz, eskola txikien kasuan abantaila nagusienetariko bat bertan sortzen diren harremanak dira eta hauek kudeatzeko denbora eta ardura handiagoa dago: *eskola txikian jasotzen den arreta ez duzu jasoko inon, zutaz ez da hainbeste kezkatuko inon* (E1).

Eskola txikien beste abantaila bat metodologikoa da: *Metodologia aldatu behar baduzu, errexagoa da, ze gutxiago gara. Adostasuna lortzea ere errexagoa da, adibidez, eskola handitan erabaki bat hartzeko, zuzendaritza talde indartsu bat dago eta por dekreto egiten da edo ez da egiten; burokrazia hutsa* (E1). Metodologia aldatzearekin batera, askatasun handiagoa dago ekintza desberdinak, proiektu berritzaileak, eskolaz kanpoko ekintzak... aurrera eramateko: *goxotasuna dago eta hurbiltasun horrengatik adibidez, emozioak lantzeko lekurik onena da* (E1).

Hala eta guztiz ere, eskola txikia izateak desbanatailak ere badituela aitortzen du: *beti dira ekonomikoak* (E1). Izan ere, eskola txikien errealitateak ez dira ezagutzen, irakasleen eskoletan esaterako, eskola handien errealitateak hartzen dira adibidetzat: *noski ez gaituztela prestatzen irakasle eskoletan horretarako, ez gizartean, ez hezkuntza departamentuan, ezta informatika programetan, ezta mahaien tamainetan ere. Ez gaituzte kontuan hartzen deustan, ez gara existitzen* (E1).

GRADU AMAIERAKO LANA

Horrek guztiak eragina du eskola txiki hauek aurrera egiteko dituzten ahaleginetan eta noski, biziraupenan:

Dirua da dena, bai irakaslegoa emateko, eskola berritzeko, bai materiala lortzeko... Ordun, gu ezgara rentableak, gu gara hemen 60 ikasle aurten, baina hurrengo urtean 50 ikasle... batz bestekoa eginez, irakasle bakoitzeko 12 haur, bai baina adin desberdinetakoak dira, ez gara zenbakiak. Baina zenbakien bidez neurtzen da dena. (E1)

Ordun, hori aldatzen ez den bitartean, eskola txikia izango da marjinatua beti, ta moldatu beharko dugu gure ahaleginekin, familien laguntzekin, udalen laguntzekin... eskola hauek oso aberatsak dire haurrentzako, irakasleentzako... oso, hemen bizitzen dena ez da bizitzen eskola handi batean, oso familiarra da. Guretzako gu gara pertsonak, baina agintarientzako gara zenbakiak (E1).

Horiengatik guztiagatik, eskola txikietan ezinbestekoa da inguratzen duen ororen arteko kolaborazioa, eta denen arteko ahalegin horri esker eskolak aurrera egin dezake.

4. Kategoria: Irakasleen ongizatea eta adimen emozionala

Zuzendariak aipatu bezala, eskola hau emozioak lantzeko eremu aproposena da, hurbiltasuna, elkarlanaren kontzientzia, goxotasuna, giro familiarra... baitago. Ordea, adimen emozionala modu eraginkorrean lantzeko, aurretiko prestakuntza eta formakuntza handia eskatzen du.

Zuzendariak dio urte asko daramatzatela emozioen inguruan formakuntza jasotzen eta hori dela beraien formazio ildo nagusia:

Gu beti joaten gara inguru hortara eskola bezala, holako ikastaroetara. Ordun, Jon Berastegirekin hasi ginenean ohartu ginen zertan ari ginen, eta bagenitun urte batzuk, pues erabaki genuen horrerik forma ematea, proiektua egitea. Oso eskola ezberdina egiten du horrek, erakusten dugulako eskola bakarrik ez dela mate, hizkuntza, ingurune... baizik eta pertsonak garela eta pertsonak bezala ikasi behar dugu jokatzeko eta bizitzen. Baina hortako denbora hartu behar da eta ikasi, ikasi aunitz (E1).

Formakuntza horiek guztiak irakasle bezala formatzea balio izateaz gain pertsona moduan emozioak landu, kudeatu, erregulatu eta ezagutzeko balio dute:

Guk hemen egin ditugu formakuntza batzuk... Eta formakuntza horiek gure taldetxoan eragina dute; hor kontatzen dituzu gauza batzuk zenbaitek ez dakizkitenak, edo zure izaeraren alderdi bat erakusten duzu normalean ez duzuna. Horrek hurbiltzen du aunitz eta beldur diegu emozioei. Formakuntzak taldean egiten badituzu, gainera sari bikoitza, norberaren ongizaterako zein taldearentzako. Ez da magia, horregatik ez gara Nafarroako eskolarik guay-ena, lasaiena, arazorik gabekoa... Ba ez, baina onartzen ditugu, kontziente gara eta aintzineria hurbiltasunez egiten dugu (E1).

Beraz, emozio hezkuntzaren proiektua izateak harremanen kudeaketa on bat egiteko estrategia, tresna eta baliabide desberdinak eskuratzeko balio du. Horregatik, zuzendariak aitortu du bertako irakasle guztiak derrigortuak daudela emozioen formakuntza jasotzera. Hauetaz gain, familiak ere formatzen direla aipatu digu: *nahiz eta beti familia berdinak izaten diren, formakuntza egin dute emozio hezkuntzaren inguruan.*

Orain ere ari dire beste bat egiten, Miren Camisonekin, herriko kultur elkarteak antolatuta (E1).

Argi ikus daiteke, eskola honen oinarrian elkarlana dagoela eta denek bide beretik jarraitzeko ahalegina egiten dutela. Hala ere, emozioen proiektuak baditu bere hutsuneak, tutoreek adierazi moduan: *hau ebaluatzeko ez dugu harrautu oraindik bidea. Ez dakigu hau nola erakutsi, emaitzak, emaitza konkretuak ez ditugu harrautuko, baina bilatu behar dugu modu bat demostratzeko lanketa honek baduela eragina; ez pertsona bezala hobeto izaten bakarrik, baina bai ezagutza hori handitzen ari zarela eta oraindik hanka motz dugu, 10 urte eta gero (E1).*

4.2.2. Irudien analisia eta narratiba: irakasleekin elkarrizketan



9. Irudia "Bazkal ordua irakasle gelan"

E1: Irakasle gelan bazkaltzeko tenorea ordu librea da, eta hor sortzen dire elkarrizketa eta egoera batzuk lanean zaudenean sortzen ez direnak: hobe ezagutzeko bizitza pertsonala, arazo pertsonalak., gustoak... eta geroko kafean ere, berdin. Egoera hauek

laguntzen dute gero lanean, ze hemen gara pertsonak.

Eredu ez formalak laguntzen dute harreman horiek kantitate eta kalidade handiago batean sortzen. Mugatzen badugu gure harremana lantokira eta lanera, lagileak gara, biño hemen gara pertsonak. Egiten ditugu irteerak, mendira, afaltzera, lo egitera hortik, ... urtin bi do hirutan irakasleok bakarrik. Konsziente gara hori egin behar dugula, noski, planak pentsatzen ditugu, nahi ditugu egin. Ez dira denak etortzen, bueno hori ere onartzen da.

Konfinamendu garaian egin ditugu bideo batzuk interneten blogean ikasleen eskura jartzeko, eta bueno, bideo horiek grabatzea ez da erraza. Gure arteko giroak lortu du lan horiek erraztea.

Ari gara orain proiektu estrategikoa garatzen eta kontenplaten ari gara irakasleen arteko harremanen lanketa martxan paratzea. Nahi dugu nolabait hor proiektatu.

GRADU AMAIERAKO LANA



10. Irudia "Pastak eta kafe katilua"

E1: *Kafe makina dugu, infusioak, mikroondasa... normalean irakasleok itxetik bizkotxuk, bertze herritako irakasleak etortzean pastak, urdaiazpiko, patata tortilla... ekartzen ditugu. Horren inguruan zer sortzen da? Giro ona, alaitasuna, konpartitzea, besteen gauzetan oharrea, urtebetetzea egoerak... eta bueno, harremanak, hori zaintzen dugu.*

Harremanetan batzuk beste batzuk biño errazago harremantzen gara. Beti hurbiltzen gara pues gu errexago moldatzen garen horiengana, konfiantza, ideologia, sexua... izan daiteke faktorea baina ez dut ikusten

oztopo edo zailtasuna sortzeko zerbait bezala. Ez diot garrantzirik ematen, eta normaltasun barruan ikusten dugu, ez da jeloskorerria, normala da. Ideologia aldetik, hurbiltasun aldetik, normala da. Gero umore ezberdinak daude ere eta bakoitzak dugu gurea. Askotan umore mota berdina dugunok hurbiltzen gara umore hori praktikatzeko, holako aldagaiak daude...

Etortzen bada norbait beti mala letxean dagona zaila da berekin harremantzea, baina hori gure kasuan ez dago, ikasi dugu moldatzen. Horretarako hemendik kanpo lan pertsonala egin behar da, nire burua lantzeko. Norberak ekartzen badu hori, pues hobe beretzako, ez dugunok, landu egin behar dugu. Horrek ez du esan nahi ez dagonik desadostasun edo gatazkarik, bai, biño gero buelta ematen diogu, hitz egiten dugu eta onartzen dugu batek egun txar bat duela. Hitz egitea da gakoa, komunikazioa.

Eskola honetan emozioekin hasi ginen gu, orduk eta orduk eskolan, lan pertsonala egiten. Formakuntza zen guretzako, guztiz. Harremanak hori gabe ezberdinagua bai, baina formakuntza horrekin hasi ginen beharra zegola kusi genulako eta hori ya aurrera pauso bat da eta ez bazen hori, bertze gauza bat izango zen, ez dakit, desberdina, noski



11. Irudia: "Kaos-a irakasle gelan"

E1: *Hori da kaosa (jajaja) eta kaosa onartzeko behar dira gauza batzuk irakasle gelan. Kaosak erran nahi du errespetua*

bertze pertsonetikiko, onartu behar da denok esperdinak garela, eta ezin ditugula gauzak berdin mantendu. Aldi berean, pue sikustea pastak, liburuk, betaurrekoak... ikusten da bizia, pertsonak garela onartzea da. Kaos horren barruan orden bat dago, ez da antzematen biño badago. Batzuetan uste dugu ez dagoela ongi biño nik uste dut bizitza ordenatu bat eramaten saiatzen garela biño desorden hori nonbait askatzen dela. Eta gero leku falta, hori re bai. Niretzako ez da kalterako, niretzako polita da.

Irakasle gela da irakasleen arteko harremanak sustatzeko lekurik aproposena. Gero, tutoritza partekatua egiten dugu, eta hor ere badago, biño batez ere irakasle gelan. Baita eskola ondoko kafetegia ere bai, baina eskola ordutik kanpo.

GRADU AMAIERAKO LANA



12.Irudia: "Mozorrotuak konfinamendu garaian"

Konfinamendu garai honetan ari gara lanin bos irakasle eta ari gara gauza desberdinak egiten eta grabatzen ikasleen itxialdia arintzeko. Holako helburuak ezin dira lortu, gure eskolako giroa ezpalitz polita izango. Mozorrotzea, hasteko beti lotua dago jaiarekin eta gainera guk normalin egiten dugu lagunekin. Guk ez dugu arazorik ze gu lagun bezala konsideratzen gara. Guretzat mozorrotzoa izan zen super errexa eta pasatu genun ongi, eta hain ongi pasa genun pues argazkia ateri genua eta konpartitu genua, ez da lotsarik, normlatasuna dago, harreman ona, hurbila. Ondo pasatzen ahal dela eskolan, eskolan daude langileak eta ez langileak bakarrik,

gure kasun lagunak, holako ekintzetako laguntzen dutenak.

Irakasleen arteko harremanetan ikasi behar da ze garrantzitsua den lantokian lankideekin ongi portatzea. Horrek ez du erran nahi lankideekin ongi eramatea eh, ongi egoteak erran nahi du onartzea bertzeen mugak, nireak, errespetatzea, eta horrela funtzionatzen du. Gu hori mantentzen saiatzen gara.

Horretarako, umorea oso garrantzitsua da, umorerik gabe gaizki goaz, eta gero, enpatia, ulertu bertzeen arazoak. Hori norbere motxilaren barruan ekari behar dugu, eta ez badugu ba ulertu behar dugu lortu behar dugula, ez dago magiarik hemen, lanketa pertsonala da.

Harremanak funtsezkoak dira, eskolak ondo funtzionatzeko, erabaki zuzenak hartzeko, elkarri laguntzeko, ondo sentitzeko, arazoak guztion artean moldatzeko... Ni zuzendaria naiz, zuzendaritzatik ondo funtzionatzeko funtsezkoa da irakaslik ondo egotia. Eta gero, ordezkoeekin funtzionatzen dugu askotan, nahi badugu bueltatzea, ikusi behar du egoera polita dagoela eskolan.

Zuzendaritzak ez badu hori ulertzen, hanka motz gelditzen da, ze taldetxoak sortuko dire, banatuko dire, ... eta erabakiak hartzea, ongi funtzionatzea, pedagogikoki ildo bera hartzea...zailagoa izango da.

5. Ondorioak

Hainbat ondorio zehazteko unera iritsiz, aipatu beharrekoa da **irakasle guztiek irakasle lanbideak jasan dituen aldaketa nabaritu eta pairatu dituztela**, eta horrek beraien praktikan aldaketak emateko beharra sortu duela. Aldaketa horien aurrean denen arteko adostasuna eta bide beretik jotzen ahalegina egitea ezinbestekoa da, baina hori lortzeko, irakasleen arteko harreman egokiak egon behar dira, giro positiboa nagusituz.

Irakasleen arteko **harreman positiboak errespetuarekin, enpatiarekin, eroso sentitzearekin, aditua izatearekin... lotzen dituzten hartu eman bezala ulertzen dituzte**. Horrela, giro positiboa nagusitzen den eskolara joatea gustagarria izaten da, ingurugiroak eragin zuzena baitauka norbere ongizatean.

Beraz, hasierako hipotesia betetzen dela egiaztatuz esan dezakegu irakasle baten ongizatearengan ingurukoekin dituzten harremanek eragin zuzena duten bezala, alderantziz ere berdin gertatzen dela, eta horrek **guztiak egunerokotasuneko jardunari ekiteko asko laguntzen duela**.

Igantziako eskola txikia izateak ere harreman horiek bereizgarri egiten ditu, denek **aitortzen baitute txikitasun horrek harremanak kantitate eta kalitate handiagokoak izatera bultzatzen duela, hurbilagoak eta konfidantzakoak direla ezaugarrituz**.

Hala ere, espazio mugatua izateak harreman horiek leku bat momentuaren arabera eraldatzera behartzen du, hau da, espazio formal batean harreman eredu formal edo informalak sortzeko denboraren faktorea izaten da aldagai nagusia, patio garaiak, bazkalorduak, bazkalosteko kafea, Horrek egiten baititu harreman horiek dimentsio pedagogiko edo pertsonalekoak diren identifikatzera.

Eskola honek harreman pertsonalek pedagogikoetan duten eraginari berebiziko garrantzia ematen dionez, zuzendariak ahalegin berezia egiten du eskolaren norabide pedagogikoa metodologia berritzaileetarantz gidatzeaz gain, irakasleen arteko harreman horien batasuna lortzeko. Horretarako, aurretik antolaturiko irakasleen arteko eskolaz kanpoko jarduerak maiz egiteak eskolako egunerokotasunean positiboki eragiten duela ondorioztatu dezakegu.

Horrek guztiak ez du esan nahi gatazkarik edo arazorik sortzen ez denik, baina gatazken kudeaketa eta ikuspegi positibo batek horiei aurre egiteko bidea ireki dezake. Honetarako, komunikazioa, hitz egitea funtsezkoa dela diote, elkar entzun, ulertu eta norberaren pentsamenduak modu egokian azalduz. Horrela, irakasle taldea adostasunera ailegatu eta eskolaren norabideari bateratasunez ekingo zaio, elkarlana eta kolaborazioa nagusituz.

GRADU AMAIERAKO LANA

Igantziako eskolan beraz, langile hutsak baino pertsonak ere badirela kontuan hartzen dute eta horrek norberaren berezitasunak eta aldi emozionalak duten eragina ulertzera eramaten du. Elkar ezagutzeak bestea ulertzea dakarren arren, norberaren emozioen kudeatzaile izateari garrantzia ematen diote, hauen lanketa pertsonala eta ondorioz, formakuntza, oinarritzotzat harturik.

Adimen emozionalean formatzeak kapital profesionala osatzen lagun dezakeen moduan, pertsona bezala garatzen ere laguntzen du, harreman positiboetara bide eginez. Irakasleak pertsona moduan emozioen kudeatzaile erreferente badira, eskola prest egongo da, kasu honetan bezala, emozioen hezkuntza proiektua aurrera eramateko.

Beraz, esan daiteke eskola honetan irakasleen arteko harremanak oso positiboak direla, bertan lan egiten duten irakasleak gustura eta pozik sentitzen baitira. Gainera, bizi duten egoera honetara ailegatzeko lanketa eta emozioen inguruko kontzientziazio handi bat dagoela kontuan hartzeak, harreman horiekiko ardura pertsonal zein profesionala hartzea dakarkie, irakasleen arteko harremanei dagokien garrantzia eskainiz.

6. Hobekuntza proposamenak

Igantziko eskolako kasu praktikoaren analisisa egin ostean, gure ustez irakasleen arteko harremanak osasuntsuak eta positiboak izaten jarrai dezaten zer egin beharko litzatekeen aurkezten da hurrengo lerro hauetan.

Irakasleekin burutu dugun lan honek hainbat ebidentzia mahaigaineratu dizkigu; batetik, irakasleen arteko harremanak osasuntsuak izan daitezen zuzendaritzak egiten dituen ahaleginak eragin zuzena duela eta honek, lidergo eraginkorrek du zer ikusteko. Bestetik, umorearen erabilpenak ere eragin handia du harreman horiengan, umore mota berdina izateak pertsonak elkartzen laguntzeaz gain, orokorrean giroa lasaitu eta goxoago bihurtzen duelako. Azkenik, irakasleek egindako eskolaz kanpoko jarduerak ere eragin positibo zuzena dute eskola barruko egunerokotasuneko harremanetan, hortaz, hauen planifikazioa eta bertan irakasle guztien parte hartzea sustatzea garrantzitsua dela iruditzen zaigu.

Hau horrela izanik, hauxe da zuzendaritza eta beronen lidergoari zuzendutako hobekuntza proposamen sorta:

HOBKUNTZA PROPOSAMENA 1	
<u>Zuzendaritzaren esku hartzea</u>	
Eremua	Zuzendaritza taldea (Igantziko eskola txikiaren kasuan, zuzendaria bera)
Nori zuzendua?	Igantziko eskolako irakasle taldea
Helburuak	<p>Irakasleen arteko harreman egokiak sustatzea</p> <p>Zuzendariak harremanei garrantzia eskaintzea</p> <ul style="list-style-type: none"> - Elkarlana bultzatzea - Talde kohesioa sortzea - Harreman positiboak sustatzea - Harreman pertsonal eta pedagogikoak bateratzea - Irakasleen ongizatea bermatzea - Irakasleak zaintzea
Zehaztapenak	<p>1. Ikasturte hasieran, klaustro osoa biltzerakoan, eskola honek irakasleen zaintzarekiko duen ikuspegia adierazi. Hau da, lehentasunak finkatu, adibidez, familia edo langile baino lehen pertsona izatea, eta hortik abiatuz, irakasle guztien bizkarrak babestuko dituela helarazi. Edozein beharren aurrean, irakasleen arteko kolaborazio sareari esker</p>

GRADU AMAIERAKO LANA

	<p>ondokoaren lana babestuko da, elkarren zaintza sustatuz.</p> <p>2. Bateratasun pedagogikoa lortzeko estrategiak baliatu. Eskolak norabide pedagogiko bat izateak ez du esan nahi bertako langileen artean desadostasunik ez dagoenik, hortaz, zuzendaria harreman pedagogikoak eta harreman pertsonalak modu negatiboan eraginik ez izaten ahalegindu beharko da. Horretarako, baliagarriak izan daitezkeen burutazioak errespetuz bildu eta ahal den neurrian denak kontuan hartuz bateratzen saiatu beharko da.</p> <p>3. Emozioen Proiektua hiru hilabeteen behin ebaluatzen den moduan, txosten bukaeran irakaslearen ebaluazio pertsonalari atal bat eskaini, eta ikasturte bukaeran datorren ikasturterako planifikazioa egiterakoan hauen lanketa bat egin, "Focus Group" bezalako teknikak erabiliz.</p>
--	---

HOBEKUNTZA PROPOSAMENA 2	
<u>Umorearen erabilpena</u>	
Eremua	Irakasle talde osoa
Nori zuzendua?	Igantziko eskolako irakasle taldea
Helburuak	<p>Irakasleen arteko harreman egokiak sustatzea</p> <p>Umorearen erabilpena sustatzea</p> <ul style="list-style-type: none"> - Umorea erabiltzeko estrategiak ezagutzea - Umorearen garrantziaz kontzientziaztea - Umorea erabiliz ongi pasatzea
Zehaztapenak	<p>1. COVID-19aren krisia dela eta, eskolaratzen jarraitu duen irakasle taldeak ikasleen egonaldia arintzeko helburuarekin umorezko bideoak grabatu eta hauei helarazi dizkiete. Honek, hauen arteko konfiantza areagotu eta giro ona sortu duenez, formato bereko ekintza gehiago burutu.</p> <p>2. Ohiko ikasturtean zehar, eskola mailan argitara eman beharreko berriren bat zabaltzeko (irteera, idazle</p>

GRADU AMAIERAKO LANA

	baten etorrera, udaberriari ongi etorria, gabonetako ospakizunak...) irakasleek umorea erabiliz, formato desberdinetako baliabideak sor ditzakete.
--	--

HOBEKUNTZA PROPOSAMENA 3	
<u>Irakasleei zuzendutako eskolaz kanpoko jarduerak</u>	
Eremua	Irakasle talde osoa
Nori zuzendua?	Igantziko eskolako irakasle taldea
Helburuak	<p>Irakasleen arteko harreman egokiak sustatzea</p> <p>Eskolaz kanpoko jarduerak egitea</p> <ul style="list-style-type: none"> - Irakasle talde osoak parte hartzea - Jarduerak aldez aurretik antolatzea - Positiboak gertatzen diren jarduerak gauzatzea - Irakasle guztiek ongi pasatzea - Eskolaz kanpoko giro ona eskola barrura ekartzea
Zehaztapenak	<ol style="list-style-type: none"> 1. Hiru hilabete bakoitzari amaiera emango dion bazkaria egin, etapa bat itxi eta berriari ongi etorria emateko. 2. Irakasle gelan liburuen txoko bat sortu. Bertan, irakasleek jada irakurritako liburuak utzi ditzakete, eta nahi izanez gero, liburu horren jabeari mezu bat utz diezaioke, dela beraien arteko harremanaren ingurukoa, dela liburuen ingurukoa, ... 3. Hiru hilabete bakoitzean, irakasle taldetxo bat (3 pertsona inguruakoa) arduratuko da denbora horretan zehar eskolaz kanpoko jarduerak antolatzeaz. Beraien artean ideak proposatu eta aurrera eramandakoak antolatu beharko dituzte, hiru hilabete bakoitzean txandatur.

GRAL honetan parte hartu duten tutoreek eta baita zuzendariak ere onartu dute ez dutela eskola honetan emozioen lanketa egiteak ekartzen dituen onurak justifikatzeko balio duen tresnarik aurkitu. Hori dela eta, GRAL hau bera erabil daiteke emozioen lanketa irakasleen arteko harremanetan positiboki eragiten duela baieztatzeko eta bidea zabalik uzten du eskolako ikasleei zein familiei dakarkien onurak ere aztertzeko.

7. Erreferentzia bibliografikoak

- Apellaniz, D. (2018) Adimen emozionala hezkuntzan. *Hik hasi*, 230, 24-27. Eskuratua <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=6947734>
- Arguiñano Madrazo, A., eta Karrera Xuarros, I. (2018). Las escuelas inclusivas en el País Vasco: organización escolar y currículum emergentes y flexibles. *Innovación Educativa: Perspectivas y desafíos*, 139-173. Eskuratua <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=6592934>
- Arón-Svigilsky, A., eta Milicic-Muller, N. (2000). Climas sociales tóxicos y climas sociales nutritivos para el desarrollo personal en el contexto escolar. *Psykhé*, 9(2), 117-123. Eskuratua <http://www.psykhe.cl/index.php/psykhe/article/view/445>
- Bauman, Z. (2000). *Modernidad líquida*. Buenos Aires: FCE.
- Bautista, A., Rayón, L., eta de las Heras Cuenca, A. (2012). Valor de los registros audiovisuales en educación intercultural. *Comunicar Revista Científica de Educomunicación*, 39(XX), 169-176. DOI: 10.3916/C39-2012-03-07
- Bautista, A., Rayón, L., eta de las Heras Cuenca, A. (2018). Imágenes experienciales y foto-elicitación en la formación del profesorado. *Educatio Siglo XXI*, 36(2), 135-161.
- Benito Martín, B. (2006). Las relaciones interpersonales de los profesores en los centros educativos como fuente de satisfacción. *Conferencia de Psicología de la Educación*, 1-20. Santander. Eskuratua <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=2377185>
- Bernal Agudo, J.L. (2009). *Luces y sombras en la escuela rural*. Zaragoza: UNIZAR.
- Bisquerra, R. (2005). La educación emocional en la formación del profesorado. *Revista Interuniversitaria de Formación Del Profesorado*, 19(54), 95-114. Eskuratu http://dialnet.unirioja.es/servlet/fichero_articulo?codigo=2126758&orden=0
- Bisquerra, R. (2008). *Educación para la ciudadanía y convivencia*. Madril: Wolters Kluwer.
- Bisquerra, R. (2014). Educación emocional e interioridad. L. López, *Maestros del corazón* liburutik. *Hacia una pedagogía de la interioridad*, 223-250. Madril: Wolters Kluwer.
- Bolaños J. D. (2015). *Relaciones interpersonales docentes y manejo de conflictos administrativos educativos* (tesis de maestría). Universidad Rafael Landívar, Guatemala. Eskuratua <http://recursosbiblio.url.edu.gt/tesiseortiz/2015/05/09/Bolanos-Jose.pdf>
- Bolívar, A. (2004) Formación permanente del profesorado y desarrollo del currículum. *Revista Colombiana de Educación* 47, 54-73.

- Bolívar, A. (2006). "¿De nobis ipsis silemus?" Epistemología de la investigación biográfico-narrativa en educación. *Red Revista Electrónica de Investigación Educativa* 4(7). Eskuratua http://www.scielo.org.mx/scielo.php?script=sci_arttext&pid=S1607-40412002000100003
- Bonafé, J. (2002). *Políticas del libro de texto escolar*. Madril: Morata.
- Castells, M. (2010). Revolución en las aulas: llegan los profesores del siglo XXI. La introducción de las TIC en las aulas y el nuevo rol docente. *DIM: Didáctica, Innovación y Multimedia*, 0(19), 1–9. Eskuratua <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=3671570>
- De pablos, J., eta González Pérez A. (2012). El Bienestar Subjetivo y Las Emociones En La Enseñanza. *Fuentes*, (12), 69–92. Eskuratua http://institucional.us.es/revistas/fuente/12/art_2.pdf
- Delors, J. (1996). *La educación encierra un tesoro*. Madril: Santillana/UNESCO.
- Duque Ceballos, J.L. (2012) Emociones e inteligencia emocional: Una aproximación a su pertinencia y surgimiento en las organizaciones. *Libre Empresa*, 18, 147-169. Eskuratua [file:///C:/Users/ACER/Downloads/Dialnet-EmocionesEInteligenciaEmocional-6586819%20\(4\).pdf](file:///C:/Users/ACER/Downloads/Dialnet-EmocionesEInteligenciaEmocional-6586819%20(4).pdf)
- Echeverría Gálvez, G. (2005). *Análisis cualitativo por categorías*. Universidad Academia de Humanismo, Chile.
- Egaña, A. (1997). *Lazkao Txiki- Sarrerako bertsoak*. ETB1. Eskuragarri <https://bertsoikasgela.eus/baliabideak/611/>
- Elías, M. E. (2015). La cultura escolar: Aproximación a un concepto complejo. *Revista Electrónica Educare*, 19(2), 285-301. Eskuratua <https://doi.org/10.15359/ree.19-2.16>
- Esteve, J.M. (1994). *El malestar docente* (3. Edizioa). Bartzelona: Paidós.
- Esteve, J. M. (1987). El malestar docente. *Cuadernos de pedagogía*, (148), 94-104.
- Eusko Jaurlaritza (2014). *Hezkuntza eredu pedagogikoaren markoa*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzua.
- Fernández, A. (d.g) *El derecho al acceso a la información en escuelas rurales y unitarias*. Giza Eskubideak eta Hezkuntza: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua. Eskuratua <https://addi.ehu.es/bitstream/handle/10810/15242/UWEB0149790.pdf?sequence=1&isAllowed=y#page=55>
- Feu i Gelis, J. (2004). La escuela rural en España: apuntes sobre las potencialidades pedagógicas, relacionales y humanas de la misma. *Revista Digital Rural, Educación, Cultura y Desarrollo Rural.*, 2(3), 13. Eskuratua <http://educacin.upa.cl/revistaerural/erural.htm>.

- Feu i Gelis, J. (2008) La escuela rural desde la atalaya educativa. Llevot Calvet, N., eta Garreta Bochaca, J.-ren liburuan, *Escuela rural y sociedad* (61-86). Lleida: Edicions de la Universitat de Lleida.
- Flick, U. (2004). *Introducción a la investigación cualitativa*. Madril: Morata.
- Fullan, M., eta Hargreaves, A. (1999). *La escuela que queremos: Los objetivos por los cuales vale la pena luchar*. Buenos Aires: Amorrortu.
- Fullan, M. eta Hargreaves, A. (2013). The Power of Professional capital, *JSD*, 34(3), 36-39. Eskuratua <http://www.michaelfullan.ca/wp-content/uploads/2013/08/JSD-Power-ofProfessional-Capital.pdf>
- Fullan, M. eta Hargreaves, A. (2014). *Capital profesional*. Madril: Ediciones Morata, S.L. Eskuratua <https://ehu.on.worldcat.org/oclc/1027157304>
- Gardner, H. (1983). *Frames of Mind: The theory of multiple intelligences*. New York: Basic Books.
- Gardner, H. (1995). *Inteligencias múltiples. La teoría en la práctica*. Barcelona: Paidós.
- Gijón Espinosa, V. (2017). *La percepción del profesorado sobre felicidad* (tesis doctoral) Universidad de Granada, España. Eskuratua <https://digibug.ugr.es/handle/10481/48831>
- Gimeno Sacristán, J. (2008). *El valor del tiempo en educación*. Madril: Ediciones Morata.
- Goleman, D. (1996). *Inteligencia Emocional*. Barcelona: Kairós.
- Euskaltzaindiaren orotariko hiztegi entziklopedikoa. (2020). *Harreman*. Eskuratua https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?sarrera=harreman&antzekoak=ez&option=com_hiztegiarbilatu&view=frontpage&layout=aurreratua&Itemid=410&lang=eu&bila=bai
- Herrera, K., Rico, R. eta Cortés, O. (2014). El Clima Escolar Como Elemento Fundamental de la Convivencia en la Escuela. *Escenarios*, 12(2), 7-18. Eskuratua <https://doi.org/10.15665/esc.v12i2.311> helbidetik eskuratua.
- Ibáñez Cubillas, P. (2015). Transformando la educación a través del capital profesional. *Convergencia*, 22(68), 269–273. Eskuratua <https://ehu.on.worldcat.org/oclc/7179912482>
- Imbernón, F. (2017). *Ser docente en una sociedad compleja. La difícil tarea de enseñar*. Bartzelona: Graó.
- Kvale, S. (2011). *Las entrevistas en investigación cualitativa*. Madril: Morata
- Lincoln, Y. eta Denzin, N. (1994). The Fifth Moment. Lincoln, Y. eta Denzin, N.-ren liburuan, *Handbook of Qualitative Research* (575-586). Londres: Sage Publications.

https://www.researchgate.net/profile/Rosa_Vazquez-Recio/publication/28154261_Reflexiones_sobre_el_tiempo_escolar/links/02e7e5176bef8319b0000000/Reflexiones-sobre-el-tiempo-escolar.pdf

- Rodríguez, M.N., Muñoz, M.O., eta Martínez, L.M. (2017). Colaboración entre profesores. Algunas condiciones y factores que la hacen posible al interior de algunas escuelas públicas. *Revista electrónica diálogos educativos*, 9(18), 66-88.
- Santos Guerra, M. A. (1994). *Entre bastidores: el lado oculto de la organización escolar*. Archidona: Aljibe.
- Tonucci, F. (2015). *La ciudad de los niños*. Barcelona: Graò.
- Torres Santomé, J. (2006). *La desmotivación del profesorado* (13zenbakia). Madril: Morata.
- Torres Santomé, J. (2007). *Educación en tiempos de neoliberalismo*. Madril: Morata.
- Torres Santomé, J. (2008). Diversidad cultural y contenidos escolares, *Revista de Educación*, (8345), 83–110.
- Viñao Frago, A. (1994). Del espacio escolar y la escuela como lugar: propuestas y cuestiones. *Historia de la educación: Revista interuniversitaria*, (12), 17-74. Eskuratua <https://www.redined.educacion.es/xmlui/handle/11162/21903>

8. Eranskinak

1. Eranskina → Hezkuntza Curriculum-ak definituriko gaitasunak eta kompetentziak

Nafarroako Foru Komunitateko Lehen Hezkuntzako Curriculumak	Heziberri 2020 (Oinarrizko kompetentziak)
<ul style="list-style-type: none"> • Zientzia, teknologia eta osasun kulturarako gaitasuna • Ikasten ikasteko gaitasuna • Hizkuntza komunikaziorako gaitasuna • Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna • Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna • Giza eta arte kulturarako gaitasuna • Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna 	<ul style="list-style-type: none"> • Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko kompetentzia • Ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentzia • Elkarbizitzarako kompetentzia • Ekimenerako eta ekiteko espiriturako kompetentzia • Izaten ikasteko kompetentzia

2. Eranskina → Irakasle tutoreei elkarrizketa

1. BLOKEA: IRAKASLEA

- Irakasle lana asko aldatu da?
- Zergatik aldatu da?
- Zertan ikusten duzu aldatu dela?
- Aldaketa guzti horiek nola eragin dute zuen lanean?
- Zein da Igantziko Eskolan irakasle baten funtzioa? Zein ezaugarri bete behar ditu?
- Ongizatean eragina duela iruditzen zaizu? Nola? Edo zertan nabaritzen duzu irakasle bat ongi dagoenean edo ez...
- Zein ezaugarri dira garrantzitsuak irakaslearen egunerokotasunean? Batez ere, harreman onak izan daitezen.

2. BLOKEA: HARREMANAK

- Zer dira harremanak, nola ulertzen dituzu harremanak?
- Harremanek eskola testuinguruan garrantzia dute? Nolakoak?
- Harremanak Igantziko eskola testuinguruan nolakoak dira? Non garatzen dira? Zein eragin dute?
- Nolako harremanak sortzen dira zure inguruan? Ikasleekin, familiekin, zure lankideekin...?
- Zein eragina dute horiek guztiek eskolako giroan, giroan?
- Zer dira harreman onak? Zer dira txarrak?
- Zein mekanismo erabiltzen dituzu zuk harreman horiek errazteko?
- Eskola mailan sentitzen duzu garrantzia dutela? Nola ohartu zara horretaz?
- Zer nolako harremanak dituzu gainontzeko irakasleekin? Batzuekin mota batzutakoak, besteekin bestelakoak, ...
- Desberdintasunak daude harremanetan esperientziatik, urteengatik, ... nolakoak izan da egokitzapena?

3. BLOKEA: ESKOLA TTIKIA

- Zeintzuk dira zure ustez ttikia izanagatik ezberdintzen dituen ezaugarriak?
- Zeintzuk dira desabantailak/abantailak?
- Kostatu zaizu eskola ttikira egokitzeak?
- Uste duzu ttikia izateak laguntzen diola harremanei?
- Igantziko eskola, ttikia izateagatik harremanak desberdinak direla uste duzu?

4. BLOKEA: ADIMEN EMOZIONALA

- Zure ustez garrantzitsua da adimen emozionala lantzea? Ikasleekin bakarrik? Norbanako mailan?
- Zure gelan leku nahikoa egiten diozu adimen emozionalari? Badago aukera emoziei buruz hitz egiteko?
- Eta dituzun harremanetan? Zehazki, lankideekin?
- Zer egiten duzu adimen emozionala lantzeko?
- Formakuntza jaso behar dela uste duzu? Zergatik? Lehendik jaso duzu formakuntzarik emozioen inguruan?
- Desberdinak izango litzateke adimen emozionala landuko ez balitz?
- Zein da zure iritzia Emozio Proiektuaren inguruan?
- Hezkuntza Emozionalaren Proiektua egongo ez balitz, desberdinak izango lirateke zure harremanak gainontzeko irakasleekin?
- Zure egunerokotasunean aplikatzen duzu adimen emozionalean landutakoa?
- Proiektuak bere gain hartzen a ditu irakasleen arteko harremanak?
- Zerbait gehiago aipatu nahi duzu?

3. Eranskina → Zuzendariari elkarrizketa

1. BLOKEA: IRAKASLEA

- Irakasle lana asko aldatu da?
- Zergatik aldatu da?
- Zertan ikusten duzu aldatu dela?
- Aldaketa guzti horiek nola eragin dute zuen lanean?
- Presio soziala nabari al duzu?
- Horrek eragina du zure ongizatean?
- Zertan nabaritzen da irakaslearen ongieza eskolan? bai pertsonala edo ondokoarena...
- Harremanetan uste duzu eragina duela?
- Zuzendariak zer egiten du eskola txiki batean?
- Zuzendaria liderra da? zer da liderra izatea? liderrak behar dira?
- Nolako lidergoak behar ditugu eskolan? eta lgantzin? eskola txkietan nola ulertzen duzue lidergoa?

2. BLOKEA: HARREMANAK

- Zer dira harremanak? nola ulertzen dituzu harremanak?
- Harremanek eskola testuinguruan garrantzia dute? nolakoa? zertan ikusi daiteke garrantzia hori?
- Harremanak eskola testuinguruan nolakoak dira? non gertatzen dira? zein eragin dute
- Harremanak inportanteak dira zuretzako eskolan?
- Nolakoak dira lgantzin? eta zer eragin dute eskola honetako bizitzan? giroan, giroan...
- Harreman onak edo txarrak zer esan nahi du...
- Zer egiten duzu zuk pertsonalki irakasleen arteko harremanak onak izan daitezen?

GRADU AMAIERAKO LANA

- Zer egiten duzu zuk zuzendari bezala irakasleen arteko harremanak onak izan daitezen?

3. BLOKEA: ESKOLA TXIKIA

- Igantziko eskola txikia izanik, uste duzu horregatik harremanak desberdinak direla? Zertan laguntzen du ?
- Eskola txikiaren ezaugarriak kontuan hartuta, zeintzuk dira harremanetan eragina dutenak?
- Txikia izatearen abantailak/desabantailak?

4. BLOKEA: HEZKUNTZA EMOZIONALA

Adimen Emozionala garrantzitsua da. Zer lotura dauka adimen emozionalak eta eskola bateko giroak, giroak, harremanak...

- Adimen Emozionala garrantzitsua da. Zer lotura dauka adimen emozionalak eskola bateko giroan, harremanetan, ...
- Zertan laguntzen du eskola mailan, eskolako giroan?
- Zertan laguntzen du harreman mailan?
- Zertan laguntzen du irakasleen arteko harremanetan?
- Uste duzu irakasleek emozioen inguruko formakuntza jaso behar dutela?
- Kontaidazu Igantziko eskolan adimen emozionalari egiten diozuen lekuaren inguruan
- Igantziko Emozio Hezkuntza Proiektuak bere gain hartzen ditu irakasleen arteko harremanak?
- Irakasleen arteko harremanetan Hezkuntza Emozionalaren Proiektuaz baliatzen zara?
- Zuzendari bezala, zein da zuri dagokizun lana emozio hezkuntzari dagokionez, ...
- Eskola mailan lantzen dena, zure egunerokotasuneko bizitzan aplikatzeko gai zara? Kontzienteki edo inkontzienteki?

4. Eranskina → Eskolako zuzendariaren baimena



HEZKUNTZA, FILOSOFIA
ETA ANTROPOLOGIA
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN, FILOSOFÍA
Y ANTROPOLOGÍA

Donostiako Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatean, Maria Yanci Irigoyen-ek, Esti Amenabarro Iraolaren zuzendaritzapean egiten ari den Gradu Amaierako Lana burutu dezan, [REDACTED] Eskolako Zuzendaritzak, Maria Yanci Irigoyen-i bere ikerketa burutzeko beharrezkoak zaizkion elkarrizketak gure eskolako zuzendariari eta eskolako irakasleei egiteko baimena ematen dio.

[REDACTED], 2020ko.....en.....a(n)

Sinadura

Zigilua

5. Eranskina → Ikerketa praktikorako parte hartzaileen baimenak

Dokumentu honen sinaduraren bitartez, ikerketa honetan parte hartuko duten pertsonei, ikerketa beraren jatorriaren inguruko berri zehatza eman zaiola ziurtatzen da, baita ere aipatu ikerketan izango duen rol eta parte-hartzeari dagozkion bestelako argibide guztiak ere. Nik,.....jaun/andreak, NAN..... zenbakia dudanak, adierazten dut: _____

_____ azterlanari buruz informatua izan naizela.

Aipatu ikerketa hau Esti Amenabarro Iraola, Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea eta ikertzailea denak zuzentzen du. Ikerketa honen helburua da: landa-eremuan kokatuta dagoen eskola publiko bateko irakasleen arteko harremanen analisia egitea. Gainera, eskola txikia izateak eta emozio hezkuntzari eskaintzen dioten garrantziak harreman horietan nola eragiten duten aztertu nahi da, ohitura onak mantenduz eta proposamen berriak eginez. Ikerketa honetan parte hartzeko gure gonbitea onartzen baduzu, elkarrizketa bat egiteko zure baimena eskatzen dugu. Aipatu elkarrizketak 60 minutuko iraupena izango du gutxi gora behera. Elkarrizketa hau eta bertan hitz egingo ditugun gai guztiak grabatuak izango dira, hartara ikertzaileak, zuk aipatu dituzun ideia edota ekarpenak erabiltzeko, aipatu elkarrizketa hauek transkribatu egingo ditu, gero ikerketaren zehar erabiliak izateko, dagozkion konfidentzialitate eta pribatutasun irizpide denak zorrotz beteta.

Elkarrizketaz gain, eskolako testuinguruan argazki batzuk egitea eskatuko zaizu, fotoelizitazioaren teknika martxan jartzeko. Argazki hauek ikerlariak beharrezko lanak egiteko erabiliko ditu, hauen interpretazioa egiteko zure laguntza beharrezko izanik. Hortaz, beste egun batean argazki hauei buruz hitz egindakoak ere grabatuak izango dira, beti ere dagokion konfidentzialtasun eta pribatutasun irizpide guztiak mantenduz. Ikerketa honetan parte hartzea erabat borondatezkoa da. Bertan jasoko den informazioa erabat konfidentziala izango da eta ez da inolaz ere ikerketa honen helburua ez den beste zeregin batetarako erabiliko. Elkarrizketa hauek kodifikazio sistema berezi bat izango dute eta zure anonimotasuna etengabe bermatua izango da.

Datuen Babesari buruzko informazio gehiago eskuratzeko, UPV/EHUko webgune hau kontsultatu daiteke: www.ehu.eus/babestu

Ikerketaren zehar edozein zalantza edo argibide egiteko eskubide osoa duzu. Modu berean, edozein unetan aipatu ikerketatik kanpo geratzeko aukera izanik eta horrek ezin

GRADU AMAIERAKO LANA

du inolako eragozpenik suposatu. Elkarrizketaren zehar galderen bat deserosoa suertatzen bada, jakinarazi ikertzaileari eta ez erantzuteko eskubide osoa duzu.

Oso eskertuta gaude zure parte hartzearekin.

Honela, Esti Amenabarro Iraola (EHU) zuzendutako ikerketa honetan parte hartzea ONARTZEN DUT. Ondo adierazi didate zein helburu dituen aipatu ikerketak. Zehaztu didate baita ere hainbat galdera eta jarduera egiteko nire ekarpena oso inportantea dela eta 60 minutu inguruko iraupena izango dutela burutuko ditugun elkarrizketek.

Nik ikerketa honen testuinguruan eskainiko dudan informazioa konfidentziala dela adierazi nahi dut eta ez dut onartuko ikerketa hau ez den beste zeregin batzuetarako erabiltzerik. Adierazi didate galderak egin ditzakedala eta ikerketaren edozein unetan, kanpo geratzeko ere eskubide osoan nagoela. Ikerketa honetan izan ditzakedan zalantzak edota argibideak eskatzeko Maria Yancirekin jarri naiteke harremanetan 618577309 telefonoan.

Baimen honen kopia bat eskuratzen dut eta modu berean, nire elkarrizketa oinarri duen ikerketa honen inguruko informazioa eskainiko zait une oro, baita elkarrizketa eta baita ere ikerketaren zehar sor daitekeen edozein informazio eskuragarri izango dudala.

Parte-hartzailearen izen eta abizenak

Parte hartzailearen sinadura

Data